



# ARGIA



ESPAINIAKO LAN ERREFORMA

## ***Patronalaren alde jarraituko du balantzak***

24-29. orriak

#2.766 | 2022/02/13 | 4,00 €



**Zahar etxeetako egoiliarak, protokolo zurrunetan itota**

30 | GIZARTEA



**Euskarazko komunikazioan nabarmenduak**

36 | ARGIA SARIAK 2022



**'Ezkontza galdutako bertsoak' liburuak 60 urte**

44 | KULTURA



# BABESTU INDEPEN DENTZIA



**Babesa duenak galdera berriak sor ditzake. Egin dezake desberdin.**

**Babesa duenak zaindu dezake elkar. Eragin dezake txikitik.**

**Kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da.**

**[argia.eus/eginargiakoa](https://argia.eus/eginargiakoa)**

**[komunitatea@argia.eus](mailto:komunitatea@argia.eus) | (+34) 943 37 15 45**

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 08 | EKONOMIAREN TALAIAN
- 09 | HUMANITATEAREN UNE GORENAK
- 09 | EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:  
KIKE HUESCA / EFE

## Iritziak

- 19 | ASIER BLAS
- 20 | UXUE APAOLAZA
- 21 | KOLDO ALDALUR
- 21 | EDU ZELAIETA
- 22 | IMANOL ALVAREZ

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:  
CLIPART COURTESY FCIT

## Finkoak

- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA: KISTIÑE GARCIA
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



DANI BLANCO

### 14 | ODEI BARROSO

Raplari eta bertsolaria elkarrizketatu du Miren Artetxek. Ausart mintzo da bere ibilbidea zeharkatzen duten gaiiez: jatorriaz, hizkuntzez, musika estiloez, bertso plazen galeraz... Bere lorrataz uzten ari da rapean zein bertsoan, eta jendaurrean agertzeko ausardia eskatzen dute bi jardunek, baina bere lotsez eta ziurgabetasunez mintzo da.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

**'Laborantza 4.0' aroa ireki nahi dute, berdez pintatu eta produktibismoarekin segitzeko**

Jenofa Berhokoirigoin

24 | ESPAINIAKO LAN ERREFORMA

**2012 eta 2022: aurkitu zazpi diferentziak**

Urko Apaolaza

30 | GIZARTEA | ZAHARREN EGOITZAK

**Bizitzaren izenean, bizitzea debekatu diete**

Leire Artola

35 | HEZKUNTZA

**Noiz erosi mugikorra seme-alabei?**

Mikel Garcia

36 | ARGIA SARIAK 2022

**Munstroak irentsi ez gaitzan**

Itsaso Zubiria

44 | KULTURA

**Ezkontza frakasatuetako trapu zikinak, bertsoan**

Kepa Matxain

### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Lehendakaria

Onintza Irureta

### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Peru Iparragirre, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

### Salmenta

Karlos Olasolo, Olatz Korta, Pello Basurto

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoak

komertzial@argia.eus  
harpide@argia.eus

#### Telefonia

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa


Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko ideia da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugun.



Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA









# Ekidistantzia

“Oinarrizko eskubideen sistema eta erakunde demokratikoak babesteko borrokaren aitzindari izan dira Estatuko Segurtasun Indarrak”, esan du berriki Eusko Jaurlaritzak. Beste txosten batean Urkulluren gobernuak aitortu eta frogatu zuen “segurtasun” indar horiek beraiek lau mila euskal herritar torturatu dituztela. Kontraesana dirudi, baina ez. Unean uneko interes politikoek arabera, batzuen eta besteen belarriak gozatu ditu Jaurlaritzak eta, beste ezeren gainerik, bere ardura oro zuritu. Egia, aitortza, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermea txostenetan oso polit agertzen diren hitzak dira. Berbak besterik ez. Irudian, “5.667” euskal herritar torturatu izanaren arduradun politikoek eta polizia, guardia zibil eta ertzain torturatzaileen inpunitatea salatu du Sortuk Gasteizen.



# Hizkuntza eskakizuna ez duen langilearen aldeko epaia, euskara "zaila" delako

**LANDER ARBELAITZ MITXELENA**

**B**itarteko funtzionario batek Laudio-ko Udaleko lanpostua galdu zuen 2020an, hirugarren hizkuntza eskakizuna behar zelako eta 2014an hasi zenetik soilik lehenengoa lortu zuelako. Bada, epaile batek ebatzi du berriz hartu beharko dutela langilea, eta udalari egotzi diote "sentsibilitaterik" ez izatea langilea kaleratzerakoan, euskara "munduko bosgarren hizkuntzarik zailena" izanik ez zutelako euskara ikasteko egin zuen "ahalegina" kontuan izan.

Ana María Martínez Navas epaileak egin duen ebazpena hautsak harrotu ditu, Kike Amonarriz soziolinguistak berak nabarmendu moduan, euskara munduko bosgarren hizkuntzarik zailena dela esatea ez hanka ez buru ez duen argudioa baita, ikuspegi linguistikotik.

Hona Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 3. Epaitegiko epaile Martínez Navasen ebazpeneko zati bat, euskarata: "Pertsona honek bere atsedeneko eta aisialdiko 1.295 ordu inbertitu izanaren eta esfortzu horren ostean Lehen Hizkuntz Profila soilik lortu izanaren aurrean, badirudi Administrazioari ahaztu

egin zaiola euskara munduko bosgarren hizkuntzarik zailena dela (zerrenda batzuetan lehena ageri da). Hizkuntza horren zailtasun nagusia da ez duela inongo loturarik beste hizkuntzekin, bilakaera isolatua izan baitu denboran. Horri gehitzen zaio egituraren komple-

**Hizkuntza-araudia aldatzeko helburua duen botere judizialaren estrategiari jarraitzen dio epaiak**

xutasuna: hiztegiari dagokionez, hitzen esanahia aldatzen da ehunka atzizki, aurrizki eta artizki gehitzen direnean. Laudioko Udalak esan du 1.295 orduren ostean SOILIK lehen profila lortu duela eta kontratua eten ziola. Horrek hizkuntza hau ikasteko ezohiko zailtasunekiko sentsibilitate falta erakusten du eta guztiaren gaineratik nabarmendu behar da lehen profila lortu zuela".

*Berria* egunkariak jaso du epaile horrek inongo funtsik ez duen interneten aurkitako edukia kopiatu eta itsatsi zuela epaian, bere argudioaren sostengarri. Laudioko Udalak helegitea jarri dio epaiari, baina hala ere, albisteak zeresan handia eman du, batez ere zirkulu euskaltzaleetan, euskaldunen aurkako beste eraso bat izan dela ulertuta.

## ERABAKI POLEMICO GEHIAGO IRAGANEAN

Epaile bilbotarrak iraganean hedabideen arreta deitu izan du behin baino gehiagotan. Batetik, 2018an *El Mundo Today* hedabide satirikoko erredakzioa mehatxatu zuen, *Espainiako ardien %90 helburu sexuarekin hazten dira* albistegatik, artzainei burla egiten ari zirela argudiatuta.

Bestetik, Ana María Martínez Navasek esku hartu zuen Galdakaon metro geltokira zihoan autobusaren aurka. Bizkaiko Aldundiak eskatu bezala, autobus lineak metro geltokian amaitu behar zuela ebatzi zuen beste epaile batek. Aipagai dugun epaileak, ordea, neurriak bertan behera utzi zituen eta autobusa metro geltokitik 700 metrora gertatzen behartu zuen. Gerora jakin zen, Galdakaoko alkateak ere salatu baitzuen, epaile hau autobusa zebilen kalean bizi zela eta hasieratik proiektuaren aurka agertu zela.

## ELKARRETARATZEA

Epaiaren aurka mobilizatu dira ehunka lagun Laudio, Euskalgintzaren Kontseiluak eta Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseiluak deituta. Hizkuntza-araudia aldatzeko helburua duen botere judizialaren strategiari jarraitzen dio ebazpenak, Kontseiluak salatu duenez. "Euskararen aurkako oldarraldia" dela eta "horrelako gehiago etorriko direla" aurreikusita, "batasunetik erantzuteko beharra" aldarrikatu du. Eskubide urraketa, bidegabekeria eta atzerapausoen aurrean, "herri grina", mobilizazio indartsuak eta egitasmo berriak aldarrikatu izan ditu Kontseiluak. ●



Laudioko udaletxea.



## HUMANITATEAREN UNE GORENAK

# Elkarrekin doazenak



ARITZ GALARRAGA

**E**ta maitasuna bada, Badiouren hitzetan, biren artean munda esperimendatzea –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–, norbere bulkada soiletik haragoko munda bat eraikitzea, diferentzia zer den probatzea, zer litzateke, ez bada gauza antzekoa, laguntasuna? Badiou: “maitasunak, iraupenean batez ere, laguntasunaren ezaugarri positibo guztiak ditu. Baina maitasuna lotuta dago bestearen izatearen osotasunarekin”. Diferentzia handirik igartzen ez, eta laguntasuna zertan den harrapatzeko, liburu artera jo behar berriz.

Aristoteles, laguntasunaz sakonen hitz egin zuen antzinako pentsalaria, *Nikomakorentzako Etika* izenekoan, urrutira gabe. Laguntasun perfektua litzateke, greziarrarentzat, antzeko bertutedun pertsonak lotzen dituen, bertutetsuak baizik ez baitu ongia helburu beretzat eta lagunarentzat. Eta bakarrik beteko litzateke parte hartzen duten pertsonak aurkitzen badute tarteko puntua. Berdinen arteko laguntasun nobleak, gainera, ez luke lortuko soilik lagunentzako onura, baizik eta halaber hiritarren bizibidearena. Laguna da beste ni bat. Lagunak dira elkarrekin doazen bi –berak dio bi, baina esan dezagun hiru, lau, nahi beste–. Adiskidetasun bete, hartara, gizaki onen eta bertuteari dagokionez antzekoak diren gizakiena da. Montaigne iritsi zen arte. Etienne de La Boetie lagunari eskaini zizkion hitzak gogoan: “Hura baitzen; ni bainintzen”. Alegia, elkarren diferentziaren ezagutzan, onarpenean, errespetuan datza laguntasuna. Lagunak elkarrekin doazenak dira, bai, ados, baina desberdintasunean. Kontxo, Badiouk maitasunaz zioen gauza bera.

Platonen nahiago izan zuen, maitasunaren aurretik, laguntasuna. Virgiliok garrantzi handiagoa eman zion laguntasunari, maitasunari baino. Ea ez ote dauden, maitasun-laguntasun, laguntasun-maitasun, elkarrengandik hain urruti. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com




## UPNren krisia

Espainiako Kongresuan lan erreformaren alde bozkatzeko eskatu zien UPNk bere bi diputatuei. Ordinetan, Iruñean Enrique Maya UPNko alkatea gaitzesteko egina zuen eskaera kendu egin zuen PSNk. Sayas eta Adanero diputatuek, ordea, lan erreformaren aurkako botoa eman dute eta krisia piztu da UPN barruan.

## Pello Zabala

Otsailaren 2an hil zen Pello Zabala idazle, meteorologo, irratiko esatari eta fraide frantziskotarra, 79 urterekin. Amezketan jaioa, 10 urterekin Arantzazura ikastera joan eta 20 urtetatik egon zen bertan. Apostoladutzarekin batera, bere bizitzako puntu nabarmenenak musika eta euskaraz idaztea zirela esaten zuen.





## EKONOMIA

# Arrakala handitzen



AINHOA ETXAIDE  
AMORRORTU


**N**afarroan hazi omen da gehien soldata handien eta txikien arteko alde. KPIaren hazkundera azken hamarkadetako handiena izan da 2021ean, eta hitzarmen duinak dituzten langileek ez dute eros ahalmenik galduko, baina gehientzat ez da horrela izango. Arrakalak gora egingo du. Zeren eta %6ko igoera hori ez da berdina soldata 3.000 eurokoa edo 1.000 eurokoa denean.

Otsailaren 22an (Soldata Berdintasunaren Europako eguna) ikusiko dugu berriro genero arrakala zenbatekoa den. Lana sexuaren arabera banatzeak sortu du arrakalarik zaharrena. Ordaintzen diren eta, merkatutik at, zaintzetan eta etxeko lanetan egiten diren lanen artean, arrakala erabatekoa da. Lehenengoen soldataren truke egiten dute lan, bigarrenek musu-truk. Lan merkatuan emakumeentzat gordetzen diren eta gizonezkoek betetzen dituzten sektoreen artean ere arrakala dago, eta pentsioetan igartzen da ondoren. Adierazpen instituzional ugari bai, baina gutxi hitz egingo da sexuaren araberrako lan banaketa gainditzeaz. Diskurtsoak bai, baina nekez entzungo ditugu arrakala atzean uzteko sakoneko proposamenak, neurri zehatzak eta politika berriak.

Genero arrakala gainditzeko, lanpostuak berriz baloratu behar dira, zor historikoa kitatzeko neurriak hartu, sektore feminizatuei bestelako aitortza egin, izaera eta lekua eman sistema ekonomikoan... Soldata handien eta txikien arteko alde murrizteko ere borroka zehatza egin behar dugu: hitzarmenetan soldatak berrantolatu, gehieneko soldatak finkatu, eta prekarietatearen kontrako neurriak hartu. Ez dago urratsik gobernuetan.

Langileok irabazi behar ditugun borroka dira. Baina ezin izango dugu, kalera-tzeak errazak eta merkeak badira, eta negoziatio kolektiboaren patronalaren neurri antolatzen badute. Hori da, hain zuzen, Espainiako lan erreforma berria. Soldata arrakala salatzea eta arrakala gainditzeko bidea oztopatzea, ez dira bateragarriak. ●

## ANALISIA



IBAETA MARTXAN

## Polizia unibertsitatean

### PERU IPARRAGIRRE

**D**ozena erdi furgoi gutxienez, Donostiako Ibaeta auzoko EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia eta Psikologia fakultateen sarreran. 2021eko otsailaren 24ko gauean, kasko gorritz, borraz eta ezkutuz hornitutako ertzainek hartu zuten unibertsitatea. Egun batzuk lehenago, fakultateko areto batean sartu zen Unibertsitate Indar Batasuna (UIB) eragilea, azaldu zuten, "lan politikoa egin ahal izateko espazio faltari aurre egiteko". Pandemia zela-eta ikasleek antolatzeko erabiltzen zuten gela ostera ere ikasgela bilakatu baitzuen unibertsitateak, alternatibarik eskaini gabe.


Askatasun politikoak aldarrikatzeko martxan jarritako kanpaina betean jo zuten mahai gainean kolpea ikasleek, fakultateko Zorroaga aretora sartuz. Erantzun gisa, dozenaka ertzain bidali zituen EHUk ikasleak identifikatu eta handik ateratzera.

Ikasturte honen hasierarako antolatze espazioa bermatzea erdietsi zuten ikasleek, baina hori lortzeko borrokaren ondorioak pairatzen ari dira oraindik ere. Azaroan salatu zuten ikasleek Zorroaga aretoko itxialdiko polizia operazioan identifikatutakoei jarritako isunetan 20.000 euro ordaindu behar zituztela. Bi eskaera jarri zituen orduan mahai gainean UIBk: batetik, poliziari unibertsitateko campusetara sarrera debekatzea. Bestetik, EHU egiten dute jarritako isunen erantzule, eta horiei aurre egiteko ardura eskatzen diote.

Otsailaren 10ean manifestazioa egingo dute, "errepresio politikoari aurre egitea eta askatasun politikoaren defentsa" aldarrikatzeko. Ikasleak manifestazioaren berri emateko propaganda egiten ari zirela, tartean margoketak, berriz ere ertzainak azaldu ziren Ibaetako campusean. Uniformez zein kaleko jantzita, barru-barruraino sartu ziren berriz ere. Urtebeteko epean EHUren fakultate horretan egindako bigarren polizia operazioan ikasle bat identifikatzea lortu zuten. Isuna jarriko ziotela eta "berarekin zer egin" EHUk erabakiko duela egin zioten mehatxu ikasleari. Unibertsitateko langile batzuk ertzainekin elkarlanean aritu zirela ere salatu du UIBk.

Unibertsitate erremuetako poliziaren esku-hartzeak modu horretan normalizatzeko arriskutsua dirudi, eremu bereziki erasotua eta aldi berean babestua izan baita; bere burua pentsamendu kritikoa sustatzeko instituzio gisa duen EHUren-tzat kritikotasunak muga argiak ditu, ordea, eta ez du zalantzarik egiten muga horiek bermatzera polizia bidali behar duenean. ●





# 100.000

arrain hil baino gehiago  
bota zituen Bizkaiko  
Golkoan munduko bigarren  
arrantzontzirik handienak.  
Hildako milaka arrainek  
osaturako orbain zuri bat  
aurkitu dute Sea Shepherd  
aktibistek Bizkaiko Golkoan,  
La Rochelle parean.

# 460

polizia saiatu dira Espainiako  
Estatuko indarkeriaren  
biktimen legeaz baliatzen  
kalte-ordainak lortzeko.  
Eusko Jaurlaritzako Balorazio  
Batzordeak atzera bota ditu  
polizien eta guardia zibilen  
eskariak.

# 4

urtez erositako  
etxebizitzan  
bizitzera behartuko dute  
Amsterdamen. Helburua da  
espekulazioari aurre egitea,  
etxebizitzak ez ditzaten erosi  
funts putreek, Bankuek  
eta jabetza asko  
dituzten  
agenteek.



*“Erantzukizunak argitu  
daitezela eskatzen dugu.  
Verter Recycling ez da  
erantzule bakarra”*

**CARLOS ALONSO**

Zaldibar Argitu plataformako bozeramailea.

Zaborteia amildu eta bi urtera, manifestazioa egin  
dute Ermuan, plataformak deituta. Alberto Sololuze eta  
Joaquin Beltran omentzeko ekitaldi berezia ere egin dute.

2022-02-06



## “GURE AHALETATIK KANPO DIREN LUR SALMENTEK ONDORIO LATZAK DITUZTE”

**AIHERRAKO HERRITAR TALDE BAT**

Ehun bat lagunek espekulazioaren kontrako protesta egin  
dute Aiherran. Salatu dute “onartezinak” direla herrian  
salgai dauden lurren prezioak; prezio duinak eskatu  
dituzte, Aiherran bizi ahal izateko.

KAZETA.EUS (2022-01-29)

*“Nola izan daiteke Nafarroan  
berezko edo ofizialak ez diren  
hizkuntzei aitortza handiagoa  
egitea? Atzerapauso  
onartezina da, adarra jo zaigu”*

**PAUL BILBAO**

Kontseiluko idazkari nagusiak kritikatu du  
Nafarroako Gobernuak aurkezturiko dekretu  
berria: eremu ez-euskaldunetako lanpostuetan  
euskararen ezagutzak ez du inolako baliorik  
izanen –bai alemanak, frantsesak, ingelesak–;  
eremu mistoan, lanpostu batzuetan baino ez da  
kontuan hartuko euskara, merezimendu gisa.

2022-01-31



## TEKNOLOGIA

## Spotify eta adierazpen askatasuna



DIANA FRANCO

**A**skotan uste dugu adierazpen askatasunerako eskubidea nahi duguna esateko eskubidea dela. Testuingururik gabe biziko bagina bezala, askatasuna hutsune batean existituko balitz bezala, harreman barik, kritikarik gabe.

Zentsura eta komisariotza hitzak gai hau ulertzeko beharrezkoak dira. Zentsurak zigorrak dakartza: kartzela, bizitza galtzea, hitz egiten ez uztea... Komisariotzak aukeraketa dakar. Spotifyk 100 milioi dolar ordaindu zikion Jon Rogani 2020an, haren podcasta eskusiban bere plataforman eskaintzeagatik; bilatzen dituen edukien inguruan aukeraketa nabarmena egin zuen, nahiz eta hainbat adituren arabera Roganek ematen duen informazioa askotan ez dagoen zorrotzasunez landua eta desinformazioa den. Informazio okerrek eremu digitalean arinago zabaltzeko aurkitu duten aukerei esker, azken urteetan egoera arriskutsuak ekarri dituzte: adibidez, COVID-19a lixibarekin sendatu zitekeela zabaldu zuen Donald Trumpek, eta zenbait pertsona horrekin kutsatu ziren.

Betiko hedabideak komisariotza lan batekin lotu izan ditugu, eta norberak gogokoago izan duen lerro editoriala jarraitu izan du. Plataformak, ordea, jaberik ez balute bezala ulertzen ditugu, baina ez da horrela, ez dira neutralak. Horregatik egin zaigu hain deigarria joan den asteko Neil Young-en jokabidea, agerian utzi baitu Spotify plataformaren neutraltasun eza, baita berak negozioak norrekin egin nahi dituen duen eskubidea ere. Neil Young abeslariak Spotify utzi du, Joe Roganen edukia duen plataforman batean bere musika izatea ez duelako baliokide ikusten. Youngen jokabidearekin bat egin du beste hainbat sortzailek, eta plataformaren erabiltzaileen erreakzioak ere ugaritzen ari dira.

Gertaera honekin zerbait berria ikasiko dugun susmoa dut, baina adi egon gaitzen, berdin funtzionatzen duten beste plataforma batzuk eskuak igurzten ari baitira bitartean, erabiltzaile eta sortzaileei atek parez pare irekitzen. ●

## NAZIOARTEA



Lehen ministro Antonio Costa hauteskundeetan emaitzen ostean. / EFE

## Kasta babestu dutenen porrota

**AXIER LOPEZ**

**A**lderdi sozialista batek, duela urte gutxi batzuek Europar erdi hiltzat jotzen zuten horietako batek, gehiengo osoa lortu du.

Portugalgo Antonio Costa sozialistaren gobernuak hauteskundeak aurreratzea erabaki zuen, 2022ko aurrekontuak onartzeko babes nahikorik lortu ez zuelako. Sozialistek aurrekontu horiek negoziatzeari uko egin zioten, eta hala, bazkideen aurkako botoa jaso zuen, Blocorena –Podemos moduko alderdien bilgune bat– eta alderdi komunistarena. Costak gutxiengoan gobernatu du orain arte, ezkerreko indar horien arteko akordio bati esker.

Baina formula hori amaitu egin da, eta barne borrokan irabazlea ‘txakurririk zaharrena’ da. Alderdi sozialistaren ezkerrean dauden ezkerrek “pandemia eta inflazioen erdian, egoera ezegonkortu izanaren erantzuletzat jota” kostua jan dute iritzi publikoaren aurrean. Gainera, inkestek ezkerrean eta eskuinen arteko berdinketa tekniko iragarri zuten, “boto erabilgarriak” bere magia egin du beste behin: eskuin muturra lagun hartuta atzerakoiak boterera itzultzeko bel-durrez, Blocoko eta Alderdi Komunistako (PCP) boto-emaile askok listua irentsi, pragmatismoa besarkatu eta PSri babesa ematea erabaki dute.

Bloco 19 ordezkariatik 5era jaitsi da, eta Alderdi Komunistak, CDU alderdiko berdeekin batera, 12 parlamentaritik 6ra jaitsi da. Sozialistek bost puntu egin dute gora (%36,3tik %41,7ra). Eta gainetik, hauxe: Chega alderdi ul-

traeskuindarrak bultzada nabarmena jaso du eta hirugarren indar politikoa izatera pasa da diputatu bat izatetik ordezkari hamarrera handituta. Oposizioaren buru Rui Rio eskuindarrak adierazi zuen, bera bigarren postuan geratuz gero (hala izan da), bere alderdiak utziko liekeela sozialistek bakarrik gobernatzen, “ezkerreko fronte bat saihesteko”. Arerioak bai, baina kastako kide ere bai, hemen eta han eskuinarentzat alderdi sozialista “gaitz txikia” da.


Hego Euskal Herrian ezaguna zaigu musika hori. Portugalen gertatutakoa ispilu on bezain gordina da Espainiako neorreformismoarentzat. Azken inkestean arabera, Unidas Podemos etengabe ari da beheeraka, eta VOX puztu. Hau da, beste behin ere, ezker instituzionalak porrot egin du bere planteamenduan: eskuina boterera iritea galarazteko, neoliberalismoarekin maite-jolasean dabilen gobernu bat ahalbidetu dute, parlamentutik berau baldintzatzen saiatuz, baina kaalean mobilizaziorik eta presio sozialik egin gabe. Arrakastarik gabe.

Zeinen fite pasa garen “mugimendu sozialak zerua irabaztera doaz neoliberalismoaren aurka” horretatik “kontuz, kontuz, badatoz eskuin muturrak” esatera. Alderdi sozialistaren ezkerrean dagoen ezker instituzionalak Portugaldik ere apunteak hartu beharko lituzke, “eskuina boterera hel ez dadin” PSOEn agintea ahalbidetzen duten horiek –Podemos, ERC, EH Bildu, BNG eta enparauk–. ●





## Erraustegiak

 ZERO ZABOR

Zero Waste Europe-k (ZWE) argitaratu duen ikerketa berri batek egiaztatu du erraustegien inguruetan kutsadura maila handia dagoela, eta hori arriskutsua litzateke ingurumenerako eta gertu bizi diren pertsonen osasunerako.

### Non egin dute azterketa?

ToxicoWatch Fundazioak biomonitorizazio-ikerketa bat egin du Valdemingomez (Madril, Espainia), Pilsen (Txekia) eta Kaunas (Lituania) hirietako erraustegien inguruetan. ToxicWatch fundazioa da, hain zuzen, Zubietako erraustegiaren jarraipena egiten ari dena.

### Zer aztertu dute?

Erraustegi inguruetan, kutsagarri organiko iraungarrien presentzia ikertu dute. Zehazki, erraustegitik hurbil dauden oilategietako oiloen arrautzak, pinu-orriak eta goroldioak aztertu dituzte horretarako.

### Zer ondorioztatu dute?

Emaitez erakutsi dute aztertutako arrautza gehienek gairitu egiten dituztela Europar Batasunak elikagaien segurtasunerako araututako mugak. Arrautza hauek saltzekoak izan balira, merkatutik kendu beharko zituzketen. Erraustegi inguruetako landarediari dagokionez, pinu-orrien eta goroldioen analisietan ere dioxina-maila handiak azaldu dira. Horrek esan nahi giza-ikerketarako kalteak jasan ditzakegula lurzoru kutsatutako barazki horiek janean gero.

### Zein gomendio egin dituzte?

ZWEren hitzetan, nahitaezkoa da biomonitorizazio-ikerketak egitea Europa osoan dauden erraustegi guztietan; dioxina kloratuak eta bromatuak etengabe neurtzeak derrigorrezkoa izan behar du; moratoria ezarri behar zaie erraustegi proiektu berriei; jadanik martxan dauden erraustegiak pixkanaka ixteko planak garatu behar dira; hondakinak errausteko alternatiba zirkularrak, osasungarriak eta iraunkorrak sustatu eta finantzatu behar dira.

## Eskolara bizikletan

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Eskolara oinez edo bizikletan joateko ekimenak emaitza onak eman ditu Hendaiaiko San Vicent ikastetxean, eta herri osoko ikasle, irakasle eta gurasoei zuzendutako proiektua abiatu du orain RecyclArte elkarteak.

### Zein da proiektua?

“Beste modu batera joan nahi duzu eskolara?” gonbidapena eginez eman du proiektuaren berri RecyclArte: gutxienez bi urteko proiektua aurreikusi dute Hendaian, autoaren alternatibak bilatu eta eskolara joan-etorria modu seguruan egitea xede. Horretarako, herriko hezkuntza komunitate guztiei dei egin die elkarteak, eta Hendaiaiko Herriko Etxearen, Herri Elkargoko Mugikortasun Sindikatuaren eta San Vicent ikastetxearen laguntza ere izango dute.

### Zeintzuk dira helburuak?

Guztientzako bide seguruak bermatzea, ikasleak euren bidaietan independenteago izatea, ingurumena babestea, eskola inguruko eremua baketsuagoa izatea –auto-ilara eta pilaketak saihestuz– eta auzoaren bizi kalitatea hobetzea.

### Ba al da aurrekaririk?

Gero eta herri gehiagotako apustua da, haurrak eskolara oinez eta beren kabuz joateko modua egitea. Ekimen hauek antzeko ezaugarriak dituzte: ibilbide seguruak eta planifikatuak adosten da, seinaleak jartzen dira bidean zehar, eta topaleku bat baino gehiago daude, norbera bizi den lekuaren arabera haurrak ibilbidean batzen joan daitezten. Oinez eta taldean, haurrak ikaskideekin joatea nahi da, herria deskubrituz, ingurua biziz eta gozatuz, kalea eta kaleko oztoko eta plazerak euren gain hartuz.

### Zein adinetatik aurrera?

Francesco Tonucci pedagogo ezagunaren arabera, 6 urterekin umea gai da eskolara bakarrik joateko, segurtasuna bermatuta baldin badu. Holandan, 8 urterekin hasi ohi dira eta Suitzan, 5-6 urterekin. Japonian, zenbat eta lehenago hasi, hobe dela iritzi diote, autonomia lehenbailehen lantzeko. Haurra eskolara gurasoekin iristea, adibidez, gaizki ikusia dago.

# 'LABORANTZA 4.0' AROA

## IREKI NAHI DUTE, BERDEZ PINTATU ETA PRODUKTIBISMOAREKIN SEGITZEKO

Laborantza hirugarren iraultzara sartzeraren omen doa. Lehen XVII. eta XVIII. mendeetan gertatu zen, lugorrien bukaerarekin eta lurra gehiago ustiatzeko logika eta ekoizpen-teknika berrien garapenarekin; bigarrena, XX. mendean, mekanizazioarekin eta ongailu zein produktu fitosanitario kimikoen zabalpenarekin. Hirugarrena bidean dela diote hainbat instituzio, sindikatu eta multinazionalak –edo behintzat, bidean nahi lukete–. Teknologia berrietan, big data eta algoritmoetan oinarritzen den iraultza dugu. Hau ere garapen iraunkorraren izenean, omen.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**L**aborantza 4.0", *Smart Farm*, "zehaztasunezko laborantza", "laborantza numerikoa", "laborantza adimentsua"... nozio berriak dira guziak, lehen sektorean batzuk eman nahi luketen aldaketa definitzeko. Izan robotak, droneak, ordenagailuak, txipak ala kamarak, teknologia numerikoak elikadura ekoizpenean integratu nahiak geroz eta leku gehiago hartzen ari du instituzio eta multinazionalen artean –gehiago kostatzen zaio, ordea, laborarien artean hedatzea–. Belar "tzarrak" detektatzeko robota; behiak jeztekoo; edota erleak ordezkatuz polinizatzen duena; elikadura-katean teknologia eta adimen artifiziala sartu nahian dabilta. Diotenez, *big data*-n bildutako datuei eta algoritmoiei esker, kasuan kasu lur eremu edota kabala bakoitzarentzat jakin daitezke zehazki zein dituzten beharrak, hortik behargabeko xahutzeak saihestuz –hortik, "zehaztasunezko laborantza" nozioa–.

Enpresa pribatuak aspaldian dabilta laborantza osoki kontrolatzeko ametsarekin. Jateko beharra beti ukamen dugulako asetzeko, etengabe izan daitekeelako diru-iturri. GEO genetikoki eraldatutako hazien jabetzari esker munduaren jabe bihurtu nahian ari dira 1990eko hamarkadaz geroztik. Orain, ordea, numerikoaren bidez ere dabilta kontrola eskuratu nahian. GEOen ekoizpenean berezituriko Monsanto erosi zuen 2018an Bayer multinazionalak, eta

gaur egun hau dabil laborantza numerikoan inbertitzen, mundu mailako liderra bihurturik. 2020an 500 langile zituen laborantzaren numerizaziora bideraturik, 2017az geroztik 2,5 aldiz biderkatu zuen horretarako enplegatutako langile kopurua. Ondoan ditu, besteak beste, Yara ongailu ekoizle boteretsua eta kapitalismoaren sinbolo ditugun McDonald's edota Walmart multinazionalak.

Confédération Paysanneko laborari Morgan Odyk *Nous, paysans, refusons la colonisation de l'ONU par l'agrobusiness* ("Laborariok errefusatu dugu *agrobusiness*-ak NBE kolonizatzea") testuan idazten duenari segi, bada kezkatzekoa: "Elikadura ekoizpenaren industrializazioa borobiltzea dute helburu, prozesua erabat artifizializatuz. Azkenean, robotizazioa, *big data*, kimika eta bioteknologiak oinarri dituen 'smart laborantza'-k laboraririk gabeko laborantza du helburu". Horregatik hastapenetik aurka kokatu zen laborari tipien sindikatua den Via Campesina: "Laborantza adimentsua' nozioarekin maskara berdea jarri nahi diote logika agroindustrialari".

Eraldaketa hau bultzatzen dabilta *start-up* gehienak AEBetan, Txinan eta Indian dira, eta pentsa daitekeenez, ez dira laborarien artean osaturiko kooperatiba ala elkarteak... Funtsean, garaian pestizidak eta ondotik transgenikoak zabalitzen arituriko ber-berak ditugu orain laborantza numerikoa laudatzen ari. Bes-

te behin hor ditugu ekoizpen intentsibo eta industrialaren sustatzaile diren sindikatuek. Horrela mintzo da Christine Lambert FNSEA-ko presidentea: "Produktu fitosanitarioen hedapena gutxitzeko bidea dugu robotaren erabilpena". Arazoa da, fitosanitarioen hedapena gutxitzeko bidean laborantza herrikoia eta ekologikoa sustatu beharrean, nahiago dutela robotek bideraturiko nekazaritza.

Instituzioak ere dira bilakaerari so, tartean Europar Batasuna. Ikerketa eta berrikuntza arloan dabilen Horizon Europe programak adibidez 95,5 mila milioi euroko aurrekontua du 2021-2027 urteentzat –5,4 mila milioi Next Generation UE planatik–, eta hauetarik 8,95 mila milioi ditu elikadura, laborantza eta ingurumenara bideraturik. Iaz Frantziako Gobernuak adostu PIA4 Gerorako Inbertsio Planak ere 100 milioi euro ditu arlo horretako enpresa pribatuentzat. Inra egitura publikoak 200 *star up* sortu ditu azken hogeitun urteetan, eta azken aldirian gero eta gehiago berezitu da Laborantza 4.0-an.

### BETIKO LELOA: KLIMA ALDAKETARI AURRE EGITEKO BIDEA

Nola ez aipa, GACSA plataforma, NBEk sortua 2014ko klimari buruzko gailuraren kari. "Klima larrialdiaren aurrean berri beharra azpimarratuz, agroindustriako lobbyek lehen lerroan jarritako laborantza ereduaren apologia egiten da-





### DIRUTZA HANDIA.

Laborantza numerizatua garatzeko apustua eginik dute hainbat multinazional boteretsuk eta estatu aberatsek, klima larrialdiari aurre egiteko bide gisa aurkeztuz. Orain arteko eredu produktibista ez dute zalantzan jartzen ordea, alderantziz, honekin uztartu nahia sentitu dezakegu.

bil GACSA” irakurri daiteke Action contre la faim, CCFD-Terre Solidaire eta Oxfam gobernuz kanpoko erakundeek plazaraturiko agirian.

Mundu mailako berotegi gasen isurketen %24 laborantzatik dator –%10 Europa mailan-. Baina kontuz, eredu industrialean dago gaitza: animalia hazkuntza alimaleek ondorioztatu metano isurketan, monokulturetan hedaturiko ongailu kimikoetan eta eredu hau oraindik gehiago zabaltzeko gisan bideraturiko deforestazioetan. Adibidez, langileen %55 laborari dituen Afrika kontinenteak soilik isurketen %15 ditu lehen sektoretik, eta mundu mailako isurketen %4 soilik da Afrikatik.

Hori horrela ez du zentzurik eredu industrialearen numerizazioak. Berdez pintatzeak ez du klima larrialdiaren arazoa

konponduko, robot batek ala laborari batek hedatu, beti kutsatuko duelako ongailu kimikoak. Gainera, badakigu teknologia berrien ekoizpenak ikaragarriki kutsatzen duela, mineralen ustiapenarekin adibidez.

Gosetearen kontrako aterabidea dute bigarren argudiotzat, transgenikoekin duten gisara. 2050ean 10.000 milioi biztanle izanen gara eta ekoizpena emendatu beharko dugu, baina berotegi efektuak ttipituz. “Arazo sozial, politiko eta ekologikoei begira aterabide teknologikoak dakarzki zehaztapenezko laborantzak; baina aterabide hauek asmatuak dira eredu konbentzionalak bere horretan segitzeko gisan. Alta, badakigu sistema dela arazoaren arduraduna”, irakurri daiteke Christopher Milesen *The combine will tell the truth: On precision agriculture and algo-*

*rithmic rationality* (“Zehaztasunezko laborantza eta algoritmoen arrazionalitateari buruzko egia salatuko digu uztamakinak”) artikulu mamitsuan. Azaltzen duen ideia horrek balio du gosetearentzat –munduan %10ak du gosea pairatzen, baina aldi berean, elikagaien %20 zakarrontzira doa–; langile eskasiarentzat –Europako etxaldeen laurdena desagertu da azken hamar urteetan, baina ekoizpena emendatu da–; laborarien prekarietatearentzat, eta beste.

Izan legedi zorrotz, dirulaguntza zuzen-gabe ala merkatu liberal eta mundializatu, bere baserrian libreki eta duinki aritzeko bidean hamaika traba ditu laborariak. Aro berri honek *big data* eta GAFAM boteretsuekiko dependentzia ekarriko lioke... soluzio gisa saldurikoa, bere kalterako, beste behin. ●

**ZINKUNEGI  
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
info@zinkunegioptika.com  
www.zinkunegioptika.com

f

# Odei Barroso

ZALANTZAN ZIUR



## MESEDE BAINO KALTE HANDIAGOEA EGIN DIT BESTEEN ONARPENAREN ARABERA BIZITZEAK



Bertsolaria eta raplaria da. Urruñarra da eta Baionan bizi da. Zzio rap taldeko partaide izana, ODEI bakarkako proiektuan dabil orain, buru-belarri.

 MIREN ARTETXE SARASOLA  DANI BLANCO

### **Barakaldon sortua eta urruñarra.**

#### **Azalpenik merezi du?**

Ni Barakaldon sortu nintzen, baina 2 urterekin gurasoak Urruñara joan ziren bizitzera eta urruñarra naiz. Hala sentitu izan naiz beti. Nire aita ez da euskalduna, Extremaduratik dator eta ama euskaldun berria zen. Ni, aldiz, ikastolara eraman ninduten txikitatik. Grazia egiten dit, inork esan izan didalako niretzat rapa euskaraz egitea erraza dela, nire ama hizkuntza delako, eta bai, ama hizkuntza dut, baina ama hizkuntza hautatu bat, erranen nuke. Zeren etxean ez ginen euskaraz ari, oro har. Gehiengoz gaztelaniaz ari ginen eta nik euskara ikastolan ikasi dut.

Pentsa, nire lehen rap testua, gaztelaniaz idatzi nuen! Garai batean musiki-

ka kaseteetan entzuten genuen, eta nik banituen bizpahiru rap kasete. Eta rap kaseteetan, bigarren aldean bukaera aldera, batzuetan base batzuk egoten ziren, entzuleak berak base horren gainean rapea zezan. Nik kasete horietako baten basearen gainean idatzi nuen nire lehen letra. Gaur egun ez nukeen erdaraz egingo, inondik inora, ez dut uste gaztelaniaz edo frantsesez euskaraz bezain ongi idatz dezakedanik, baina hala xe izan zen, nire lehen testua gaztelania txar batean idatzi nuen.

#### **Nolatan rapa?**

Oso goiz heldu zitzaidan, baina ez dakit nola. Jendeak uste du lehendabizi bertsotan hasi nintzela eta gero rapean, baina alderantziz da. Bertsotan 12 bat

urterekin hasi nintzen, eta rapa hori baino lehenago deskubritu nuen. Ez dut oroitzen nondik nora heldu zitzaizkidan bizpahiru kasete horiek. Violadores del verso, I am, Lunatic, Mafia K'1 Fry... Halako taldeen lanak iritsi zitzaizkidan eta haiei buelta eta buelta ibili nintzen luzaz. Gerora ezagutu nuen euskarazko rapa, Selektah Kolektiboa taldeari esker, eta hori eztanda bat izan zen. Lehen eta bigarren diskoak irentsi egin nituen. Rap hura hurbilagokoa egin zitzaidan, oso identifikatua sentitu nintzen. Zerbait mugitu zen nire barruan.

Garai hartan Gorka Rodriguez, gure lehengusua, gure etxean bizi izan zen bi urtez, eta hori izan zen bigarren klika. Etxean base bat jarri eta rapeatu egiten genuen, txakur janariaren latekin erri-







# Odei Barroso Gomila

BARAKALDO, 1988



Zzio taldearekin hiru disko argitaratuak ditu: *Pausuz Pausu* (2013), *Bideak* (2015) eta *Orain eta hemen* (2018). Pausuz pausu, bakarkako bideari ekin dio orain eta hemen. Udaberrirako diskoa kalean izatea da asmoa.

moak egiten aritzen ginen... Jolasa zen. Eta jolasetik sortu zen Zzio.

## Eta rap talde bat sortu zenuten rockaren eta metalaren garaian...

Bai, bai. Basamortua zen. Frantzian lehertzen ari zen rapa, baina nire ingurua ez zen batere rapzalea. Orain gazte horiek inbidia ematen didate, baina aldi berean satellite izate hori ez nuen gaizki bizi. Nire espazio propio bat edukitzea bezala zen: "Hau da nire gauza".

Gure garaia rock eta metal garaia zen. System of a Down, Rage Against the Machine, Korn, Slipknot... Eta 14 urterekin ukan nuen lehen musika taldea metal talde bat izan zen [irriz]. Nik letrak egin eta kantatu egiten nuen. Baina ez zen kantu-kantua. Oihukatu, errexitatu eta erdi-rapeatu egiten nuen. Ez dut inoiz ahots polita dudarik pentsatu eta ez naiz inoiz erabat ausartu kantatzera. Gero bertsoak derrigortu nau horretara, baina gaur egun ere ez dut nire ahotsa maite. Ohitu naiz, hori bai. Horregatik da rapa niretzat formula bikaina. Zeren eta hitzak molda ditzaket, errimatu ditzaket, eta ez dut bortxaz doinu batekin kantatu behar.

Nire inguruan rapa ni bezala bizi zuen bakarra Jo Olaskoaga zen, MAKEko kidea, Zzioko beatmakerra bilakatu zena eta orain nire bakarkako proiektuan laguntzen nauena. Bera izan zen ni rapean hasteko errudun nagusia. Bera etorri zitzaidan MAKEkin egin nuen kolaborazio hura entzun eta gero, erranez baseak egiten zituela, eta zerbait egin behar genuela. Berak eman zizkidan hegalak.

Asko zor diot. Segurtamen handia eman dit beti, nire buruan sinetsarazi dit. Horixe zen falta nuen elementua rapean hasteko.

## Ba al dago Euskal Herrian rap eszenarik?

Ez, ez dago. Guk askotan jo dugu 4-5 rock edo punk talderen artean. Eta ez da gure lekua. Plazak hustu ere egin izan zaizkigu. Igo, jo, jaitsi, eta jendea itzuli. Uste dut rapari eta elektronikari, oro har, ez zaiola lekurik egin Euskal Herrian. *Euskal Rock Erradikala-k*, mesede egin dion bezala gure herriari, musika aldetik



kalte egitera ere iritsi dela uste dut. Euskal musika musika mota horrekin lotu dugula ezinbestean, eta hortik ateratzen zena ez zen euskal musika. Paradoxa galanta da, zeren eta *Rock Radical Vasco* mugimenduko musika ia guztia gaztelaniaz egiten zen...

Raparen booma Frantzian 90eko hamarkadan gertatu zen, 2010. urterako trap pilo bat egiten zen, eta Euskal Herrira orain ari da iristen.

Baina trapak berak 20 urte baino gehiago ditu!

Hasieran frustrazioz bizi nuen hau guztia: "Hain gaizki ari gara?". Gure musika ez da inoiz izan publiko handi batek kontsumitu duena. Ez du inoiz hartu. Orain erabat onartua dut gurea ez dela arrakasta

istorio bat izango. Baina jarraituko dut berdin-berdin. Noski, pozten naiz abesti edo bideo-klip bategi arrakasta duenean, baina ez dut nire lana Youtubeko bisiten arabera moldatuko. Nire bakarkako proiektua horixe da. Nire desioen arabera, erabaki guztiak nik hartuz sortu dudak proiektua da ODEI.

“  
**Iruditzen zait oro har ez dela aski apusturik egiten Hegoaldean Iparraldeko musika ezagutzeko eta hauspotzeko”**





### **Zein da bakarkako proiektu honen zioa?**

Ezagutzen ez nauenak pentsa dezake ausarta naizela, jendaurreak ez didala beldurrik ematen, ez daukadala lotsarik... eta aurkakoa da. Sekulako lotsak gainditu behar izan ditut, eta asko ditut oraindik. Nire testuetan ageri da. Baina jendaurrekotasunari aurre egin behar izan diot, Zion kantatzeko eta bertsoan aritzeko. Gaur arte ez bada ODEI proiektua sortu, beldur horien-gatik ere bazen.

Urte asko pasa ditut zuzena izan nahian denekin, politikoki zuzena izaten... Eta bi gauzez ohartu naiz: lehenik, ezinezkoa dela, eta bigarrenik, ez dudala nahi. Mesede baino kalte handiagoa egin dit besteen onarpenaren arabera bizitzeak. Eta gaur da eguna non ODEI egin dezakedan aldarrikatuz ez dudala inoren onarpenik espero. Egiatzki inporta dutenak nire bizian hor daude eta hor egon dira beti. Denborak aitzina egin ahala joaten zaizu inporta zaizun jendea, galtzen dituzu maite dituzun pertsonak, eta ohartzen zara zenbat aldiz ibili zaren ezagutzen ez duzun jendearen arabera, zaintzen zaituena zaindu gabe. Beraz, ez zaizu nire musika gustatzen? Arazorik ez, entzun beste zerbait!

### **Nola uztartzen dituzu rapa eta bertsoa?**

Bertsolaria bezain raperoa naiz, baina ez dakit erabat uztartzen ditudan... Rap munduan bertsolari gisa etiketatua izan naiz maiz. "Raperoak dira *hau eta hau* ere egiten du." Eta dozena bat urte daramatzat rapean!

Bertso munduan, berriz, rapean aritzea bitxikeria gisa ikusten da, onenera. Ni joan izan naiz saio batera eta 60 bat urteko gizon batek esan saioaren ondoren: "Oso saio ederra, baina rapa ta gauza horiek utz itzak, motel!". Batzuentzat badirudi bertsolari ona izan behar baduzu bertsolari soilik izan behar duzula. Baina ni ez naiz inoiz bertsolari puru eta kanoniko horrekiko identifikatu.

Hasieran frustrazioz bizi nuen hori. Rapean bezala, besteen onarpena behar nuen. Osinalde sarian, esaterako, ni ez nintzen publikoak eskatzen zuen hori, baina nik zortziko txikian jendeak barre egin zezan nahi nuen, eta zeharo trakets aritzen nintzen... Hura ez zen nire umorea! Eta, noski, beti ikusi izan naute bertsolari serio eta sakon baten gisan. Umorea ere badut, baina ez daukat bertsolari umoretsuaren etiketa. Eta horrek asko baldintzatzen zaitu,



## **HAN-HEMENGOA**

"Frantsesentzat espainola izanen naiz beti, eta espainolentzat frantsesa. Eta lehen Hegoaldekoentzat Iparraldekoa nintzen eta Iparraldekoentzat Hegoaldekoa. Baina hori aldatu egin da. Hemengoentzat hemengoa naiz orain. Baina txikitant konplexu handia nuen. Aitak euskaraz ez jakiteak lotsa ematen zidan, bertso munduan, adibidez. Pilotan eta futbolean ere, gurasoek frantsesez ez jakiteak lotsatzen ninduen. Denborarekin joan zait, baina urte asko pasa ditut euskalduna eta hemengoa naizela frogatu nahian. Kosta zait nire lekua atzemaitea eta kanpo-onarpen horren beharrik ez izatea".

## **ODEI PROIEKTUA**

"Sorkuntza eginda dago orain dela hilabete batzuetatik. Baina soinuari ari gara lanean orain, mimo handiz. Lan handia eta luzea da, baina ez dut ezer besteren esku utzi nahi. Eta asko ikasten ari naiz bidean. Hemengo soinuari dabiltzan batzuk, Arteholakoek, elkarte bat sortu dute haien Parisko lagun handi batekin. NTM, Kanye West eta halakoekin lan egin izan duen pertsona bat da. Poza ematen dit euskaraz ez dakien norbaitek halako apustua egin nahi izateak. Hizkuntza ez dakienak belarria beste nonbait jartzen du, eta maite badu hitzez gaindi ere zerbait dagoen seinale da".

## **RAPA EUSKARAZ**

"Rapa euskaraz egiten duzue? Zergatik?" Askotan haserretu izan nau galdera horrek. Rock talde bati ez diogu horrelakorik galdetzen. Munduko gauzarik logikoena delako nik rapa euskaraz egitea. Iritsi nintzen galdetzeraz kazetariari ea zergatik egiten ote zidaten galdera. Ea pentsatzen ote zuten euskara ez zela aski raperako, edo ba ote zuten euskarak nik ezagutzen ez nuen ezaugarriaren bat rapa euskaraz egitea harrigarri egiten zuena".

## IPAR EUSKAL HERRIKO MUSIKA SORKUNTZA

Iruditzen zait oro har ez dela aski apusturik egiten Hegoaldean Iparraldeko musika eza-gutzeko eta hauspotzeko. Azken hamabost urteetan foko gutxi jarri da hemen, ikusirik zeinen eskaintza originala eta aberats dugun. Orbel, Habia, Lumi, Paskal Irigoyen, Ztah, Diabolo Kiwi, Kuartz, Torheit... Horrelako taldeak beste nonbait atzema-tea zaila da. Eta jakinik 70.000 euskal hiztun dauden eremu batean halako proposamenak egiten direla, arreta hain gutxi jartzea kezkarria zait. Orain Iruñerrian dugu begirada, Ibil Bedi, Chill Mafia, Tatzers... Eta uste dut beharrezkoa dela eta ongi iruditzen zait, baina ez dut ulertzen nola hemengoarekin ere ez den egin. Ez dut ulertzen nola ez diren ausartagoak Euskal Herriko musika produktore, ekoizle eta *management* etxeak. Nola proposamen oso antzekoak programatzen diren urtez urte... Uste dut programatzaileek ar-dura bat dutela, publikoa hez-tekoa, entzuleari aukera ematekoa gustu estetiko berriak garatzeko. Alta, txosnetan musika berdina entzun dugu urtez urte, festibal handietan beti antzeko izenak ageri dira afixtan... Iraultza nahi duen herri batentzako kontra-esankorra iruditzen zait".

Bestetik, Diabolo Kiwi aipatu dut baina ez dakit taldekideek zer erabakiko duten segidari buruz Leire Iribarneren heriotzaren on-doren. Bere heriotzak sekulako dolua eragin du hemen inguruan. Pertsona eta artista izugarri bat joan zaigu, goizegi, eta hutsune handia utzi du. Sinetsi nahi dut, dagoen lekuan dagoela, hemengo artista gazteen oihartzunak iri-tsiko zaizkiola, bere ahotsa gure bihotzetaraino iritsi zen bezala. Leire joan da, baina bere ahotsak luzaroan iraunen du bizirik.

oso gaztetatik. Bertsoa bertsolariaren arabera entzuten da. Ezer esan gabe asko esan dugu mikro aitzinean jartzen garenako. Bertso bera ez da berdina denen ahotan. Eta batzuetan jendeak nitaz zuen irudia eta nik nire buruaz nuena ez zetozen bat. Denei pasako zaigu hori, eta emakume bertsolarien kasuan zer esanik ez.

**Emakume bertsolariak aipatu dituzenez, esan behar dut zu izan zarela bertsolari gizonetzko gutxietako bat Kontrako Eztarritik liburuagatik goresmenak ematen entzun dudana...**

Ez dakit pozten naizen... Feminismoa hurbileko sentitzen dut. Eta nire gizonetzko pribilegiotik, eta beste posizio batetik, argiki, aipatzen diren azpiratze mekanismo asko identifikatu ditut nire bizipenetan ere. Eta emakumezko bertsolari askori irakurritako kezkekin identifikatua sentitu naiz maiz. Zer pentsatu handia eman dit haiek entzuteak.

Eta *Kontrako Eztarritik* liburuaz, zer esan... Hor pertsona batzuk daude haien bizipenak kontatzen. Eta pertsona horiek horrela bizi izan dute bizi izan dutena. Ulertu horrela bizi izan dutela eta kito. Gainera ez dira bertsolari bat edo bi. Piloa dira. Eta horren aurreran gizonetzko isildu eta entzun besterik ezin dugu egin.

Kezkatzen nau horren inguruan egiten den kritika oso interes pertsonaletatik izateak. Askok plazak galtzeko edo egoera aldatzeko beldurretik hitz egiten dutela pentsatzera iritsi naiz, eta beldurretik ez dira irakurketa objektiboak eta kritika eraikitzaileak ateratzen.

**Niri amorrua ematen didana da, hain zuzen, ez direla haiek plazak galduko dituztenak. Izatekotan, ziur aski, beste gizon batzuk izango direla emakumeengatik "ordezkagarriak". Tartean zu, beharbada...**

Ulertzen dut zer esan nahi duzun, eta erranen nuke neurri batean egia dela. Baina komeni da zooma atzera egitea. Bertsolaritza aldaketa fase batean dago, bereziki emakumeek egin duten lanagatik. Lana ez du elkarteak, edo kanpoko eragileren batek egin. Beraiek egin dute. Makina aldarazten ari dira haien izerdiz. Eta hau are gehiago baloratuko dugula uste dut hemendik urte batzuetara. Lan izugarria dago egiteko oraindik, eta

hamaika komentario eta ekintza lekuz-kanpoko ikus eta entzun daitezke. Baina inplikaturako emakumeen etengabeko borrokari esker ari dira gauzak aldatzen. "Hau gurea da", esan dute, eta hartu dute. Eta orain bertso-eremuari dagokio leku hori bermatzea, dagokien lekua defendatzen energiari xahutu ez dezaten.

Nik ez dakit neurtzen horrek niri zenbat eragin didan. Lehen 70 plaza nituen eta orain hamar dauzkat, bai, baina faktore asko daude hor. Esan nezake zuk plazak kendu dizkidazula, esaterako. Eta pentsa dezaket ez dela bidezkoa, leku hori nirea zelako. Baina bi urrats atzera eman eta plazako argakia ikusten badut, uler dezaket fenomeno asko daudela elkarrekintzan hori horrela izan dadin.

Egia da batzuetan zaila dela plazen gorabeherak asumitzea. Nik gaur egun oso oso plaza gutxi ditut. Baina ez dut gaizki bizi. Egia da batzuetan horrek pentsarazi didala beharbada ez dudala gauza handirik eskaintzeko. Aitortzen

“  
**Orain erabat onartua dut gurea ez dela arrakasta istorio bat izango. Baina jarraituko dut berdin-berdin”**

du horrek ziurgabetasun handia sentiarazi didala. Badakit ez dela erabat horrela, baina oso zaila zait sentipen horri aurre egitea batzuetan. Nire ikuspuntuaren balioan sinestea.

Baina gauzak zer diren, okerrago bizi izan nuen bat-batean ia plaza-rik ez izatek plaza pila bat ukatera pasatzea. 2010eko eta

2012ko Xilabako buruz burukoak aitzin hamar plaza egiten nituen. Eta hori eta gero 70 nituen. Eta bertsolari bera nintzen. Inpostore sindrome ikaragarria nuen. Plazen erditatik negarrez itzultzen nintzen pentsatuz ze txarra nintzen, ez nuela merezi... Itzala erosoagoa da argia baino, askotan.

**Ipar Euskal Herriko bertsolari txapelketan aritu zara aurten ere, eta esan dezagun: gutxigatik gelditu zinen buruz burukotik kanpo.**

Xilaba honetara aurkeztu naiz izena emana nuelako. Ia-ia publikoan esan ere egin dut, nire azken txapelketa zela. Baina atzera egin dut, behin txapelketa hasita pentsatu dudalako: "Niri hau gustatzen zait". Hau ere bai. Eta zergatik utziko dut hainbeste gustatzen bazait? Ez zen larria izango niretzat aurten finalera ez sartzea, edo ez Euskal Herrikora sartzea. Uste dut ez dagoela urrun nire azken txapelketa, baina maite dut plaza, eta kantuan segitu nahi dut. ●





# Iritziak

## Gerra agitatzaileak



ASIER BLAS MENDOZA  
EHU-KO IRAKASLEA

**H**edabide gehienek informazio-manipulazioa eta AEBen agenda eta interesetikiko mendekotasuna areagotzen duten une horietako bat bizi dugu. Duela urtebete gertu zegoen txinatar inbasioa Taiwanen. Orduan hedabideek sormen amaigabea erakutsi zuten ustezko inbasioaren faseei buruzko mapa eta azalpenekin. Beno, agian ez zen irudimen propioa; izan ere, *ipuin* horiek gehienetan AEBetako inteligentzia agentzietatik edota horiekin lotuta dauden *think tank*-etatik eta fundazioetatik datoz. Are gehiago, batzuetan konplexu militarrek edo agentzia horien zerbitzura dauden erakundeek zuzenean argitaratzen dituzte artikuluak hedabideetan. Azken asteetako adibide esanguratsu bat izan da AEBetako armagintza enpresa handienetako batek, Lockheed Martin Corporation-ek, Ukrainaren inbasio errusiarraren ideia hauspotzeko aurkeztutako artikulua *Politico* hedabide eragin-sortzailean. Esan gabe doa bi aste geroago enpresaren akzioen kotizazioa izugarri igo zela.

Gauza da orain zurrumurru eta informazio faltsuak zabaltzeko unea dela Errusiak Ukraina laster inbadituko duela defendatzeko. AEBek eta Erresuma Batuak ohituta gauzate Irakeko bi gerraren moduko kanpaina desinformatibo eta probokatzaileetara; hala ere, gero eta deigarriagoa da kazetaritzaren murruntza atlantista.

Ez dago Errusiak Ukraina inbadituko duela adierazten duen datu objektibo edo subjektiborik. Kremlinek aktiboki eta pa-

Zuhurtziagabekeria  
AEBen eta  
Erresuma Batuen  
aurkezpen-gutuna  
dira. Are gehiago orain,  
gerra behar baitute  
beren gainbehera  
inperiala geldiarazteko

siboki errepikatu du ez duela inbadituko. Errusiak ez du inolako interesik horretan, besteak beste, bere ekonomia suntsituko lukeelako, okupazioak eta giza galerek krisi soziopolitiko erraldoia sortuko luketeelako herrialdean eta Errusiak zuhurtzia handiz jokatzen duelako nazioartean. Zuhurtziagabekeria AEBen eta Erresuma Batuen aurkezpen-gutuna dira; beraien mespretxuaren eta irainaren diplomaziarekin (sic); herrialdeen subiranotasunaren aurkako erasoekin; nazioarteko legedien hausturarekin; armak ez ugaltzeko itunetatik erretiratzearekin eta abar. Are gehiago orain, gerra behar baitute beren gainbehera inperiala geldiarazteko.

Washingtonen askok pentsatzen dute gerra dela AEBek bizi duten ataka larritik ateratzeko tresna egokia: gero eta zatituagoa eta ezegonkorragoa den jendartea kohesionatzeko balioko duen


gerra; inflazioaren gorakada eta zorren etengabeko hazkundearen aurrean dolarra indartzeko balioko duen gerra; AEBetako armagintzaren negozioa berpiztuko duen gerra; Urruneko lurraldeetako suntsiketak berreraikuntza-kolonizazio negozioa irekiko duen gerra; Europako Batasuna AEBetara ainguratuko duen gerra; eta Errusia amildegira eramango duen gerra Mendebaldearen mende geratzeko, bloke angloamerikarra indartzuz Txinaren aurkako lehian.

Europa kontinentalak nahi ez duen gerra da ardatz anglosaxoiak nahi duena. Europako herrialde gehienek, besteak beste Alemania eta Frantzia, berretsi dute AEB eta Erresuma Batua ustezko mehatxua artifizialki puztzen ari direla. Ildo horretan kokatu dira ere bai Ukrainako presidentea, gobernu kideak eta militarrek, eta ez da harritzekoa kontutan izanik beraien ustezko lagun angloamerikarrek inbasioaren ipuinarekin ukrainar ekonomia hondoratzen ari direlako. Hala ere, agian Kroaziako presidentea, Zoran Milanović-ek, adierazi du hobekien bizitzen ari garena: "Honek ez du zerikusirik Ukrainarekin edo Errusiarekin, Ameriketako Estatu Batuen barne-politikaren dinamikarekin du zerikusia"; eta bitartean, Mendebaldeko herrialdeen aliatuek Yemen bonbardatzen jarraitzen dute. Dagoeneko ia 400.000 dira hildakoak Mendebaldeko laguntxoek miseria gorrian utzi duten herrialdean. Baina horretarako komunikabideek ez dute denbora gehiegirik, noski. ●

# Gizarte zahartuak



UXUE APAOLAZA  
LARREA



ANTTON OLARIAGA

**N**oizean behin, normalean nire arretaren oso ertzetik pasatzen den kezka bat entzun edo irakurtzen dut: populazioa zahartzen ari da. Berriki gertatu zait. Eta datu zaparrada baten bidez xeheku ohi dizkidate zahartze horren erritmoa eta geografia. Tentazioa ematen du serio jarri eta kafea hartzen ari garelako komentatzeko, “zahartzen ari dira gure gizarteak! Zahartzen; eta ez dirudi atzera bueltarik dagoenik!”.

Baina berez, datuak, bere horretan, ez du lortzen nigan kezka handiegirik sortzea, edo ez teoriarik behar lukeen norabidean. Alegia, datuei begira, haur gehien non edukitzen diren ikusita, kezkatzen nauena ez da izaten gure gizarte zurien zahartzea, baizik eta jaiotza tasa sendo horiek dituzten lekuetako emakumeen patua. Kafea hartuz, beraz, aurpegi serioa jarri eta, “zer ari dira oraindik munduko leku batzuetan emakumeak haurrak eduki eta eduki: zerk behartzen ditu horretara?”. Eta kezka horrek bai, irudimenak ere eskura ditugun datuak erabiltzen baititu, triapak nahasteko moduko dimentsioa hartzen du. Erantzuna ez baita izaten “noski,

herrialde horietan lan finakoak dituzte, etxebizitza duin bat lortzen dute berehala, eta beren bizitzetan guretan baino pisu txikiagoa du etorkizunarekiko ziurgabetasunak”. Ez.

Tira, ba ez naiz gai zahartze horrek sortu behar lidakeen kezka sentitzea. Are gehiago, manipulatu sentitzen naiz datu horiei lotutako zenbait kezka entzuten ditudanean: bakardade kasuak areagotuko dira, ez dugu pentsioak ordaintzeko adina langile edukiko, gure kulturak desagertuko dira migratzaile arrotzen erruz, nor zainduko ditu hainbeste zahar, gizarte tristeak izango dira haurrik gabeko gizarteak (benetan?)...

Demografiari buruzko datuak modu maltzurrian erabiltzen dira. Ez diot nik, datu horiekiko nire kezka gabezia nolabait justifikatzera etorri zaidan Marta Luxanek baizik. Aipatutako arazoak ez ditu demografiak sortzen, gure gizarte antolaketak baizik. Eta Luxanek datuak bilatu ditu, landu ditu eta kazetariak “orain zer galdetu behar diot” aurpegiarekin utzi ditu. Eta niri opari bat egin dit: berari entzun aurretik ez nuen kontzeptu bat oparitu dit (ikertzaileek

noizean behin opari zoragarriak egiten dizkigute: kontzeptuak). Biziraupenaren demokratizazioa.

Horrela esanda, nor kezkatzen du horrek? Nork ez du nahi gehiago bizi, osasuntsu samar bada, zainduta bada. Nori iruditzen zaizkio tristeak pertsona zaharrak? Eta nire deserosotasuna justifikatuta zegoen, agian. Populazioaren zahartzeak kezkatzen dituenak, zeren kezka dute? “Merkatua da, adiskidea”. Datu bereberekin pentsa daiteke, nola egingo dugu aldaketa demografiko horietan goxo bizitzeko, orain arteko eredu (turbo)kapitalistak hori ematen ez duela ikusita? Edo pentsa daiteke, emakumeak inkubagailu izateari uzten ari dira (zenbait lekutan), eta ez dute gure aberastasuna haziz joan dadin behar dugun langile hornidura bermatzen.

Tira, ba nik ez dut seme-alaba gehiago edukiko, eta zahartzarora iristeko ahalegina egingo dut. Eta nire umorearen bilakaera ikusita, gero eta alaiagoa naizela uste dut. Erridikulutik gero eta gertuago nago, zorionez. Gizartea ez du zahartzeak hondatuko, gizarteak merkatuak hondatzen ditu. ●





**KOLDO ALDALUR  
HIRIGOIEN**  
KAZETARIA

## Alienazioa

**H**erriko Gazte Koordinadora Sozialistaren inguruko hainbat gazterekin berriketaldi interesgarria izateko aukera izan dut, eta ahotan zerabilten terminologiak garai batean parrokiako lokalaren ilunpetan entzundako kontzeptuak ekarri dizkit gogora: proletarioen antolakuntza, biolentzia kapitalista, lan-indarra, gainbalioa, eta beti bereziki gustukoa izan dudana alienazioa, besteak beste.

Langileak, logika kapitalistari esker eta izaera mekanikoaren menpeko merkantzia bihurturik, pentsatu beharrik ez du; eta horrela, erabakitze ahalmenik gabe, sortu duenaren jabe izateari uzten dio.

Begietako makarrak kentzeko betarik eman gabe, editoreak gaurko albistegirako lana jarri dit: Caminando Fronteras gobernuz kanpoko erakundeak estatuko migrazioari buruzko txostena plazaratu du, eta bertan azaltzen diren datuekin bideoa egin behar dut eguerdirako.

Datuak irakurri ditudanean, neure buruari agindu diot lokaztu behar banaiz lokaztuko naizela, gaiak era gordinean azaltzea eskatzen duelako: Mediterraneo itsasoan, 2021ean, 21 herrialdeetako 4.404 migratzaile hil edo desagertu dira. Horietako berrehundik gora, umeak. Eta datu “ofizialak” dira, gehienetan errealitatearen gordintasuna ezkututzen dutenak, alegia.

Editoreak kamera bat hartu eta kaleko jendeari iritzia galdetzeko ere “propo-

satu” dit. Neure golkorako pentsatu dut datuok interpretatzen lagunduko didan aditu bati galdetzea hobe nuela agian. Baina tira! Hola nahi badute, holaxe.

Egin ditut galderak, topatu ditut artxiboan irudi batzuk eta egin dut testua. Bideoa, gorpuztuta.

Emititu aurretik berriro deitu dit editoreak. Irudiak gogorregiak omen dira. Badakizue, itotako umeen gorputz puztuak, hilkutxak zerrendan jarriak eta horrelakoak.

Gainera, luze xamarra atera omen zait eta laburtuko banu eskertuko omen lukete. “Jakina! –pentsatu dut– Bestela ez zaie derrigorrez sartu beharreko informazioa sartuko.” Badakizue...

Hori gutxi ez, eta testuan galderak ez omen dira komenigarri. Nork duen ardura politikoa galdetzea, edota nazioarteko erakundeek hitz potoloak aireratzeaz gain migrazioaren aferan duten erantzukizunaz galdetzea, ez omen da “komunikatiboa” “gure” informatiboetan.

Eta bata dela eta bestea dela, heldu da eguerdiko informatiboa ikusteko garaia eta jarri naiz telebista aurrean. Sinetsiiezadazue, ez dut neure bideoa ezagutu. Datuak leunduta, gaiak behar duen denborarik gabe, adituen argirik eta galdera deserosorik gabe... Merkantzia bihurtutako langilea sentitu naiz.

Gaur ere, barruak lokaztu gabe etxera. ●

## Fikzioaren gramatika VI: (kalkoen) kalkoak



**EDU ZELAIETA ANTA**  
IRAKASLEA ETA  
IDAZLEA

*Fikzioa omen da komunikazioa, norberaren interpretazioa ez bezala.*

*Fikzioa omen da egia, gezurra ez bezala.*

*Fikzioa omen da errealitatea, fikzioa bera ez bezala. A. Alieva*

**N**ork nori hartzen dion kopia. Nork zer imitatzen duen. Teknologia digitalak direla medio, afera ezin postmodernoagoa dela eman lezake; hararik ere, kontua aspaldi zaharrekoa dela erakusten dute hainbat testigantzak. Adibidez, gizakia animalia mimetikoa dela adierazi zuen Aristotelesek, eta imitazio bidez ikasten eta sortzen omen du.

Arazoa, debatea, edo dena delakoa ez da originaltasunaren auzi filosofikoa; horretarako, besteak beste, irizpide erresolutiborik ez duzu. Argiago, hagitzez ere, ikusten duzu hamarkada batzuk daramatzagula kalkoaren kalkoarekin, telebista masa kontsumo bihurtu zenetik. Harrezkero, ikus-entzunezko formatu berriagoek abiadura azkartu eta paradigma sendotu baizik ez dute egin. Musika komertzialean, konparaziorako: melodietan, letretan, interpretazioan, bideoetan edota *produktua* saltzeko maneretan.

Txikitako kalko paperek, sikiera, ikatzaren arrastoa uzten zuten. Egungo asepsian, hori ere ez. ●

# Berramesten



**IMANOL ALVAREZ**  
IRAKASLE OHIA ETA EHGAMEN  
SORTZAILEETAKOA

**1** 976ko azaroaren hasieran, ezagutu berria nuen gizonezko gazte batek kontatu zidan Erresuma Batuan sortuak zirela homosexualitatea askatzeko taldeak, Gay Liberation Front zeritzona kasu, eta ametsa zuela Euskal Herrian antzeko elkarte bat sortzea.

Ez nuela posible ikusten erantzun nion, gurean erlijioak botere eta indar itzela zeukala eta euskaldunak matxista hutsak zirela. Halere, beharbada beti izan naizelako baikor samarra, erabaki nuen amets zoro horretan bidelagun iza-tea. Azken batean, saiatzea libre.

Egia esan, konbentziturata nengoen se-guru asko ametsa amesgaizto bihurtuko zitzaigula berandu baino lehen. Baina ez zen horrela izan. Gauzak uste eta espero baino hobeto eta azkarrago joan ziren gertatzen.

Hainbat lagunekin bildu eta hitz egin ondoren, hurrengo urtarrilean jendaur-reko aurkezpena egiteko gauza izan ginen. Laster, prentsan agertu, eta gero eta leku gehiagotatik hitzaldiak ematera joateko gonbitea jasotzen hasi ginen. Ekitaldiak antolatzeke ezinbestekoa zenez legalizazioa eskatu bagenuen ere, ez zitzaigun 1983ra arte heldu, Martin

1976an gizonezko gazte batek kontatu zidan Erresuma Batuan sortuak zirela homosexualitatea askatzeko taldeak, Gay Liberation Front zeritzona kasu, eta ametsa zuela Euskal Herrian antzeko elkarte bat sortzea

Villak ez gintuelako legez-tatu nahi. Ia herrialde guztietara hedatu, alderdi politikoe-kin zein beste herri mugimenduekin harremanetan sartu, lehen ma-nifestazioak antolatu... Konturatu gine-nerako, homosexual izatearen susmoa bera zigortzen zuen Arriskutasun eta Birgizarteratze Sozialeko Legea aldarazi

genuen. Jarraian, beste lege-aldaketa ugari etorriko ziren.

Legeak lege, argi izan dugu beti gizar-tea bera dela, jakina, garrantzitsuena. Guk jendarte justuago eta berdinzale bat amesten genuen. Harrotasunez esan de-zakedan arren gizar-tea ere bestelakotuz joan ginela, aitortu behar da, era berean, alor horretan oraindik askotxo dugula egiteke eta egiteko.

Gurea bezalako beste talde askotxo agertu eta desagertu egin dira hamar-kadotan, borrokari gehituz ñabardura, tokikotasuna... kolorea azken batean. LGTBI+ mugimenduaren presentzia, gero eta nabariagoa joan da izaten espa-rru guztiotan.

Denborak aldatu eta talde gehienak hustuz joan ziren, ordea. Gazteek uste bide zuten dena –edo ia dena– lortua zela. Taldeotan gutxi eta edadetuak ge-ratu ginen, ageriko erreleborik gabe. Etsigarria egoera. Azken urteotan, alta, badirudi mugimendua berpiztu egin dela, eta lan egiteko gogo handiz hurbil-du dira lagun anitz. Eskerrak! Izan ere, kontrako korrante kezkarriak datoz. Borrokari eutsi behar diogu ezinbestez amesten segitzeko. Berramesten. ●

ANTIXETA  
**IRRATIA**  
90.5 / 89.7 FM

**20** URTE

*uhinak euskaraz eta libreki astintzen*



 ARGIA *Azoka*

**Artikulu hauek  
erosita ekarpen  
ekonomikoa egingo  
diozu Bilboko  
Mbolo Moye Doole  
elkarteari. Atera  
aldarria kalera  
euskaraz eta wolofez!**



**azoka.argia.eus**  
**943 37 15 45**

Bidalketa gastuak: 4 €

40 €-tik gorako erosketetan,  
bidalketa doan.

Amul been nit ku leegala  
**inor**  
**ez**  
**da**  
**ilegala**  
ARGIA eta MBOLO MOYE DOOLE ELKARTEA

**8€**



## ESPAINIAKO LAN ERREFORMA

# 2012 eta 2022: aurkitu zazpi diferentziak

Espainiako 2012ko lan erreforma derogatzeko baino, lege hori “berresteko” bozketa egin dute Espainiako Kongresuan –besteak beste Ciudadanosen aldeko botoekin–, hori salatu dute behintzat euskal sindikatu eta eragile ugari. Izan ere, duela hamar urte Mariano Rajoyren gobernuak onartutako testuarekiko hain da antzekoa oraingoa, bataren eta bestearen arteko diferentziak aurkitzea denbora-pasa bilakatu daitekeela.

**URKO APAOLAZA ÁVILA**

**O**tsailaren 3an Madrilgo kongresuan onartutako lan erreforma prozesu luze baten azken pausoa izan da, ezinbestean amaiera groteskoa izan duena –PPren diputatu baten akatsari esker atara da aurrera–. Yolanda Díaz Espainiako presidenteordeak hilabetetan zehar CEOE Espainiako patronalarekin eta CCOO eta UGT sindikatuekin negoziaturikoak, zeri guri gutxi du Unidas Podemosen eta PSOEren hauteskunde promesa nagusienetarikoaekin: 2012ko Mariano Rajoyren lan erreforma basatia bertan behera uztea.

Erreforma martxan dago abenduaren 30ean Espainiako Gobernuak 32/2021 errege lege-dekretua aldizkari orokorrean argitaratu zuenetik, baina kongresuaren onespena behar zuen. Horretarako babes bila aritu da Díaz bere ohiko

bazkideen artean, tartean euskal alderdi abertzaleak, baina oraingoan EAJk eta EH Bilduk ezetz esan diote. Euskal lan esparrua ez errespetatzea eta kaleratze merkeak ahalbidetzen segitzea egozten diote testu berriari –ELA, LAB, Steilas, ESK, Hiru eta Etxalde sindikatuek ere gogorarazi duten bezala–.

Díazek ez du testutik “koma bat ere” mugitu, CEOEk argazkitik ateratzeko egindako mehatxuaren ondorioz. Keinu horrek adierazi dezake ondoen, noraino dagoen baldintzatua botere ekonomikoei. Rajoyren erreformaren muinak hor jarraitzen du: lan-hitzarmenen negoziazioan balantza enpresariaren alde dago nabarmen. Legeak aurrerapauso batzuk dakartzan arren, 2012ko lan erreformarekiko marrazkiaren antza oso handia dauka, eta kostako zaio irakurleari zazpi diferentziak ikustea. Ausartzen?







Formahoni ez!  
SCO DE RELACIONES LABORALES



# 1 Ultraaktibitatea

Hitzarmen kolektiboen aurrera eragina berriz ere mugagabe bihurtzea da Espainiako Gobernuak egin duen lan araudia- ren aldaketa nagusietako bat. Neurri hori hartu izan dute ahotan gobernu- ko PSOE eta Unidas Podemos alder- diek eta CCOO eta UGT sindikatu es- painiarrek, 2012ko lan erreformari sakoneko aldaketak egin dizkiotela argudiatzeko. Rajoyren exekutiboak onarturiko legeak ultraaktibitatea ez- batu zuen hasiera batean, baina gero urtebeteko aurrera eragina ezarri zen. Hau da, itun bat iraungi eta urtebete- ren buruan ez bazen beste bat adosten, Langile Estatutuen gutxieneko baldin- tzak ezarriko zituen enpresak.

Hori gertatu zen, esaterako, 2013an Balear Uharteetako ATESE zerbitzu eta garbiketa enpresako hitzarmena iraungi zenean: egun batetik bestera Lanbidearteko Gutxieneko Soldata kobratzen hasi ziren langileak. Baina afera Espainiako Auzitegi Gorenera iritsi zen 2014an, eta honek langileen alde egin zuen. Jurisprudentzia horrek praktikan ultraaktibitatea berrezarri zuen, eta hortaz, esan liteke oraingo neurriak aldaketa handirik ez duela ekarriko.

# 2 Mugagabeak gora

Obra-kontratuak desagertu dira, eta aurrerantzean ezin- go dira lan-kontratuak bata bestearen atzetik sinatu, langilea egoera zaurga- rrian geratu eta lege-iruzurra egiteko modu bat baitzen. Baina enpresak ja- rraitzen du behin behineko kontratuak egiteko aukera izaten, nahiz eta sasoiko lanak “aldizkako mugagabe” izatera igar- roko diren. Yolanda Díazen ministerioak behin-behinekotasunarekin amaitzea zuen lehentasun, “kontratazio muga- gabea finkatzea, eskubideak eta lan- egonkortasuna izango dituen etorkizun baten aldeko apustua egitea da”, idatzi zuen ministroak Twitterren, araudia Espainiako Kongresuan bozkatu bez- peretan, kontratu mugagabeak 2022an %9tik %15era igaro direla irudikatzen zuen grafiko batek lagunduta.

Baina kontratu mugagabeak dituzten langileak kalera botatzea lehen bezain erraz eta merke izango du enpresariak: lan egindako urte bakoitzeko 33 egu- neko indemnizazioa, 2012ko erreforma aurretik ezarrita zegoen 45 egunekoa beharrea. Gainera, tramitazio solda- tak ez dira berreskuratuko –kaleratze bat dagoenean enpresak beregain har- tu behar duen kostua, epailearen agin- duz langilea berriz onartu behar izanez gero– eta kaleratze kolektiboak lehen bezala egin ahal izango dira enplegua erregulatzeko espedienteak erabiliz.

# 3 Barne malgutasuna

2012ko lan erreformaren eztabaidaren erdian, orduan Adegiko presidente Eduardo Zubiau- rrek zera adierazi zion *Berría* egunka- rriari elkarrizketa batean: “Gustatzen zaigun eredu malgusegurtasuna da”. Hau da, enpresak erabakiak hartzeko malgutasuna edukitzearen truk langi- leak “segurtasuna” izango zuela bere lana mantentzeko. Urteotan guztiotan ikusi dugu hitz horren bigarren zatia jan duela errealitateak. Eta orain, lan araudi berriaz Espainiako patronaleko kideek konplexu gabe hitz egiten dute, CEOeko buru Antonio Garamanedik egin duen moduan: “Barne malgutasunerako me- kanismoak ez dira ukitu”, aitortu du.

Lan egunak, ordutegia, soldatak, mugikortasuna eta bestelako lan-bal- dintzak justifikazio handirik gabe al- datzeko aukera izaten segitzen dute enpresek. Bestetik, Aldi Baterako Erregulazio Espedienteak (ABEE) errazago ezarri ahal izango dituzte, testuinguruaren arabera; eta gainera, RED izeneko sistema sortu da, krisi ziklikoen edo sektorialen aurrean lan- harremana eten edo lanegunak mu- rritzeko gerri gehiago izateko.



LAB sindikatuko dozenaka kidek Adegia Gipuzkoako patronalaren egoitza okupatu zuten lan erreforma salatzen. / LAB



# Lan erreformaren ondorioak

2012ko erreforman lan eskubideek murrizketa basatia ekarri zuen. Ordukoan, argudio nagusia zen lan-merkatua oso zurruna zela, eta lan-baldintzak ezin zirela egokitu egoera ekonomiko larrira. Baina hamar urteotan erreformaren ondorioak ikusiz gero, teoria antzua da, eta Kataluniako Taifa ekonomia kritikoaren seminarioak datu batzuk eman ditu hori erakusteko.

2008ko krisiaren ondoren, 2015 eta 2017 artean Espainiako Estatu-ko BPGa %3,8 eta %3 artean hazi zen, baina enpleguaren hazkundera motelagoa izan zen, %0,9 eta %2,7 artean. 2019an enplegu-tasa oraindik 2007koa baino %4,4 baxuagoa zen. Soldatei dagokienez, 2019an ordainsariei BPGren %46,3 suposatzen zuten, 2017an baino puntu bat gutxiago (%47,3).

Taifa seminariokoen ustez, ebidentziek erakusten dute kontratazio mugagabea sustatzea kaleratzeak merkatuz edo lanpostuen murrizketa saihestu nahi izatea “barne malgutasunarekin”, porrot egindako politika baten parte direla. “Inongo ikerketak ezin izan du erakutsi soldaten igoerak, kaleratzeen kostuak eta lan-baldintzen egonkortasunak pisu nabarmenik dutenik enplegua sortzearen kontra”.





## 4 Sektoroko soldatak

Rajoyren gobernuak duela hamar urte onartutako lan erreforman, enpresako lan-hitzarmenek lehentasuna zuten sektorekoen gainera. Orain, aldiz, sektoreko lehenetsiko da. CCOO eta UGTk azpimarratu dute horrek soldatetan hobekuntza nabarmena ekarriko duela -12.000 euroko aldea zenbait kasutan- enpresek ezin izango dituztelako euren hitzarmen partikularrak erabili ordainsariak jaisteko, zenbait zerbitzu konpainietan gertatzen zen bezala (garbiketakoak, segurtasun enprestatokoak...). Baina sektore hitzarmenen lehentasuna soldatetan baino ez da hitzartu, eta ez bestelako lan-baldintzetan. Gainera, Hego Euskal Herriaren kasuan, soldatak jadanik hobeak dira, Pello Igeregi ELAko Negoziazio Kolektiboko arduradunak *Hordago*-ri azaldu bezala: "Euskal Herriaren enpresa hitzarmenak ez dira erabili sektorekoak okertzeko, hobetzeko baizik, presio sindikala egon delako hori orreala izan zedin".

## 5 Azpikontratazioari mugak

Enpresen arteko azpikontratatearen eta lan-arriskuen sorleku nagusietako bat direla salatu dute behin eta berriaz langileen ordezkari eta eragile sozial ugariak. Euskal Herriaren 2020an lanean hildakoen %15 azpikontratatutako zeuden, sindikatuek kaleratutako txostenaren arabera. Aurten azken lan istripu larria Cementos Añorga gertatu da urtarrilaren 26an: azpikontratatutako migratzaile bat elbarri geratu da, gidatzen ari zen garabiak prebentzio neurri gokiak ez zituelako.

Yolanda Díazen lan erreformak azpikontratatutako langileen baldintzak hobetuko dituela esan dute bere defendatzaileek, baina testuaren orrazketak aldaketa nabarmen bakarria dakar, 42. artikuluan: azpikontratek errespetatu beharko dituzte "garatzen duten jardueraren" sektoreko itunak, bere helburu sozial edo forma juridikoa dena dela ere. Neurri horrek zerbitzu ugari eskaintzen dituzten konpainiei eragingo die, baina bakarrik soldatei dagokienez, beste lan-



PSOE eta Unidas Podemosi kritika zorrotzak egin dizkiete ezkerreko mugimenduek, 2012ko lan erreforma derogatzeko hauteskunde promesa ez betetzeagatik.

@GRAFISMO

baldintzak enpresak inposatu ditzake. "Ezin dugu onartu maila ezberdineta-ko langileak egotea; lan berdina egiten baldin badugu, lan eskubide berberak izan behar ditugu", azaldu dio *Hordago*-ri ESK sindikatuko Iratxe Alvarezek.



Enplegu mugagabea sustatzea helburu duen arren, lan erreformak ez ditu kaleratze merkeak eragotziko eta enpresek malgutasuna izango dute lan-baldintzak aldatzeko. Irudian, Lanbideko egoitza batean itxaroten.

FOKU / JAGOBA MANTEROLA





## 6 Estatalizazioa

Euskal lan harremanen esparrua errespetatzea izan da EAJK eta EH Bilduk egin dioten eskari nagusia Espainiako Gobernuari. Jeltzaleak otsailaren 3an lan erreforma onartu baino ordu batzuk lehenagora arte aritu ziren baldintza hori mahai gainean negoziatzen. Hala ere, araudi berriak estatuko itunak lehenetsiko ditu marko autonomikoaren gainetik.

2017an ELA, LAB, CC000-Euskadi eta UGT-Euskadi sindikatuek eta Confebasketik akordioa sinatu zuten, EAeko lurraldeetako lan hitzarmenak ezarri ahal izateko. Baina akordio horrek lan erreforman lekurik ez duenez, sinatuko diren lurralde hitzarmenek ez dute berme juridikorik, eta Madrilen borondate onaren menpe daude, "Estatuarekiko obediencia duten CCOO eta UGT bezalako sindikatuek inpugnatu" baititzakete, Carlos Etxeberri kazetariak *Noticias de Gipuzkoa*-an gogorarazi zuenez -ostalaritzako euskal esparru itunarekin halako zerbait gertatu da berriki-. Urtarrilaren 30ean lan erreformaren kontra Hego Euskal Herriko hiriburuetan egindako manifestazio jendetsuetan euskal gehiengo sindikalak ozen esan zuen, amaieran plaza-raturiko irakurketan: "Euskal langileon lan- eta bizi-baldintzen inguruko erabakiak Euskal Herrian hartu behar dira, eta ez Madrilén".

ELA, LAB eta ESK-ko ordezkariak EAJKo EBBko burukideekin bilduta, euren eskaerak azaltzeko. / EAJ

Lan egunak,  
ordutegia, soldatak,  
mugikortasuna  
eta bestelako  
lan-baldintzak  
aldatzeko aukera  
izaten segitzen dute  
enpresek



Ezkerrean, Cepyme eta CEOE patronaleko kideak, UGTko eta CCOOko idazkari nagusiak eta Yolanda Díaz Espainiako Gobernuko lehendakariordea, lan araudia negoziatzeko bileretako batean. / CEOE

## 7 Elkarrizketa soziala

Txikle baten antzera luzatu eta maneatu daitezkeen hitza izan da elkarrizketa soziala

lan esparrura eraman izan denean, eta kasu honetan ere ez da salbuespena izan. PPK 2012ko legea ateratzeko ez zuen adostasunik behar izan estatuko sindikatuen eta CEOE patronalaren artean. Sánchezen gobernuari, baina, Bruselak bi baldintza jarri dizkio europar dirufuntsak jasotzeko: behin-behinekotasuna jaistea, eta sindikatuen nahiz patronalaren artean adostea hori nola egin. Beraz, oraingoan akordioa lortu dute -lortu beharra zuten-, eta "elkarrizketa soziala" deitu diote horri.

Bistan da CEOEri lan erreforma negoziatzeko aukera gehiago eman dizkiela Espainiako Gobernuak EBrekin sinaturiko baldintzek, hogeita hamaika eskutik izateko adina. Eta askorentzat beto esku-bidea dena oso agerian geratu da, dekretutik "koma bat aldatuz gero" patronalak ez onartzeko egindako mehatxua eta gero. Azken batean, agian, ARGIA (2.764 zk.) Endika Alabort ekonomialariak esan bezala, honako hau Europar Batasunaren lan erreforma da. ●

## Zaharren egoitzak

# *Bizitzaren izenean, bizitzea debekatu diete*

la bi urte dira COVID-19a zabaltea eragozteko neurriak bata bestearen atzetik hartzen hasi zirenetik. Honezkerok jakina da adinekoak kolpatu dituela gehien koronabirusak, eta heriotza-tasa altuenak adin tarte horrek izan dituela, baina ezin da ahaztu zaharrek heriotza baino hurbilago bizitza dutela, bizitza duina izateko eskubidea, babesaren izenean askotan ukatu zaiena. Bi urtez "heriotzak, bakardadea, larritasuna, ezintasuna, mina, min handia, enpatiarik eza, arreta txarra" jasan dutela gogorarazi dute Babestu Araba mendekotasuna duten adinekoen senideen elkartetik. "2020ko martxoaren 9a askori inoiz ahaztuko ez zaigun data da. Erabaki zuten egoitzak zigilatzea, inolako begirunerik gabe".

 LEIRE ARTOLA ARIN  DANI BLANCO

**E**nara Villena Otaegi Hernaniko adinekoen egoitzako erizainak gertutik bizitu du zaharren egunerokoa bi urte latz hauetan, eta Eusko Jaurlaritzak jarritako protokolo "zentsugabeen" ondorioak kontatu dizkigu, hilabete luzez gainerrako egoitzak eta senideen elkarreak salatzen ari direnak. Argi du: protokoloek ez dute ez egoiliarren ez langileen ongizatea bermatzen. "Egoiliarrek muturreko egoerak bizi dituzte. Askok esaten digute horretarako ez dutela bizi nahi". Isolamendu zorrotzekin eta bisita zein kontaktu mugatuekin, egoitza soziosanitarioak zaharren "kar-

tzela" bilakatu dituzte, eta nahiz eta omikronen aldaerarekin neurri batzuk lasaitu, egoiliarrek bakardade handia sentitzen segitzen dute. Villenak zehaztu duenez, batez beste beren geletan isolatuta ematen dituzten egun kopurua izugarria da.

Azken hilabeteen Jaurlaritzak hiru aldiz eguneratu du EAEko egoitzetako protokoloa -berriena 2022ko urtarrilaren 17koa da-, eta notizia izan da adinekoen isolamenduak hamar egunetik zazpira jaitsi dituztela, besteren artean. Babestu Araba elkarreak, ordea, kritikatu du instituzioek erakutsi nahi dutela zaharren egoitzetan





normaltasuna itzultzen ari dela, baina "oso mingarria" dela egungo egoera, normaltasunetik urrun. Iritzi berekoa da Villena erizaina, eta eskatu du egoiliarrentzako neurriak gutxienez beste herritarrei ezarritako berberak izatea, sufrimendu hori saihesteko. "Protokoloak egiten dituztenak gonbidatzen ditut zaharren egoitzara etortzera egoiliarrek isolatuta daudenean; ez dute gertu aiton-amonarik, ala?". Kritikatu du protokoloak kanpotik jartzen direla, barruko egoera ezagutu gabe: "Ez dakite zer behar dauden zaharren egoitzetan; eta baldin badakite, ez dut ulertzen zertan ari diren".

### ESKUAK GARBITZEKO PROTOKOLOAK

"Euren eskuak gabitzeko besterik ez dizkigute ezartzen protokoloak, egoiliarren eta langileen ongizatean pentsatu gabe", leporatu die Jaurlaritzari eta egoitzen ardura duten foru aldundiei erizainak. Egoitzetako langileek aukera gutxi dute COVIDaren kudeaketan erabakiak hartzeko, eta are gutxiago egoiliarren familiek; adinekoek, batere ez. Egoiliar asko autonomoak diren arren beren erabakiak hartzeko, Hernaniko erizainaren hitzetan "tuntun" gisa tratatzen dituzte. Bizitzako azken egun, aste, hilabete, urteetan daude, eta ezin dute erabaki

nola pasatuko dituzten. "Kontuan izan egoitzetara joaten direnak ez direla osasuntsuen daudenak, eta gehienak oso zaharrak direla. Bihar agian hilda daude, edo osasunez gaur baino okerrago, eta azken urte horiek kentzen ari zaizkie". Zaharrek bizitza duinerako duten esku-bidea aldarrikatu du.

Ikusitakoak ikusita, balantzan jarriz gero uste du ez duela merezi hain neurri zorrotzak hartzea: "Gogorra da esatea, baina hobe litzateke adinekoek bizitza normalagoa egingo balute, horrek dituen arriskuak beren gain hartuta". Momentu honetan bizitza normaletik oso urrun daude. Eusko Jaurlaritzaren





protokoloaren arabera, positibo susmo-pean dagoen egoiliar oro isolatu egin behar dute, probaren emaitza negatiboa izan arte. Jaurlaritzaren dokumentuak dio kasu positibo bat dagoen momentutik koronabirusaren agerraldi moduan erregistratu behar dela.

Beraz, kontaktu estua izan direnei proba egingo zaie, eta isolatu egingo dira, txertatuta egonda ere. Egoitzetarik kanpo, txertaketaren pautak osoa dutenak konfinamendutik salbuetsita daude, kontaktu estua izan arren; adinekoen egoitzetan, ez. Villenak ohartarazi du pandemiarekin jendarteak adinekoak zigortu eta zokoratu dituela: "Ez gara haien lekuan jarri, baina denok iritsiko gara zahartzarora eta orduan traturik eta zaintzarik onenak nahiko ditugu". Haien bakardadea bere begiekin ikusi du, eta buru osasunarentzat zein osasun emozionalarentzat bortitza egin zaio: "Askotan malkotan iristen gara etxera. Egoiliar batek negarrez esaten digunean horrela egon baino nahiago duela hil, bihotza erdibitzen zaigu. Kartzelan daudela sentitzen dute". Oso kezkatu-

### Villenak ohartarazi du pandemiarekin jendarteak adinekoak zigortu eta zokoratu dituela:

*"Ez gara haien lekuan jarri, baina denok iritsiko gara zahartzarora eta orduan traturik eta zaintzarik onenak nahiko ditugu"*

ta pasatu dituzte pandemiaren unerik zailenak, eta muturreko egoerak bizitu dituzte adinekoek. "Une batean ikusi genuen arriskua zegoela aiton-amona bategen baino gehiagok beren buruaz beste egiteko". Zaharren bizitzak babestearen izenean, bizitzak kendu dizkiete. Osasunaren izenean, osasuna okertzeko baldintza guztiak jarri dizkiete.

Adinekoak jasaten ari diren sufrimendu psikologikoaren zama langileen gain erori da, ezinbestean. Esaterako, Herriko erizainak baieztatu du erruduntasun sentimendua oso orokorra izan dela; langile batek positibo emanez gero, harekin kontaktuan egon diren egoiliarrrak isolatu egiten dituzte, auxiliarrarekin batik bat oso gertuko kontaktua izaten baitute eta egoiliar batzuek ezin baitute maskara egoki erabili. Langileengan kontraesanak piztu dituzte COVIDaren aurkako neurriek: "Zer pentsatuko zuten familiek, ezin zutenean bisitan joan egoitzara, baina ni lagunekin taberna batean egon nintekeanean?", bota du erizainak, frustrazioz.

### SALBUESPENAK PROTOKOLOAN

Azken protokoloaren berritasuna da eguneko zentroetan dauden kontaktu estuek ez dutela isolatu beharko, eta egoitzara joaten jarraitu ahalko dutela. Halaber, salbuespena da azken 180 egunetan positibo izan bada egoiliarra, eta proba bidez ziurtatuta badago; 90-180 egun artean izan bada positibo, proba



Egoiliarrei eguneroko poztasunak debekatu dizkiete: paseoak ematea, lagunekin eta familiarekin kafe bat hartzea, elkarren artean kontu kontari aritzea, kartetan jolastea

egingo zaio, baina ez du isolatu beharko. Langileen kasuan, gainerako herritarren antzeko protokoloa dute. kontaktu estua izan direnek ez dute isolatu behar, baldin eta txertaketako pauta osoa badute edota azken 180 egunetan positibo izan direla frogatu badezakete.

Bi ñabardura garrantzitsu: batetik, Jaurlaritzak egoitzen ardurapean utzi du erabakitzea zein langile diren kontaktu estu; bestetik, azken hilabeteetan aldatu egin dituzte txertatutako kontaktu estuentzako arauak. Abendu amaierara



arte, kontaktu estu ziren langileek ezin zuten lanera joan, eta baja ematen zieten; txertatutakoek bizitza soziala egin zezaketen, baina arrisku talde batekin lanean zeudenez, lanik ez. Bada, azken aldaketaren arabera, kontaktu estu diren txertatu gabeko langileei soilik emango diete baja, eta txertoa dutenek lanera joan behar dute, baldintza ho-

nekin: zazpi egunez norbera babesteko ekipamendua (NBE) jantzi behar dute, goitik behera. Villenak langileen haserrea helarazi du: "Tortura bat da zazpi orduz NBerekin lan egitea, bereziki lan fisikoagoa duten auxiliarentzat". Gainera, ez zaie bidezkoa iruditzen txertatutakoek bajarik ez izatea, kontuan izanda kutsatzeko arriskua badagoela. Kritika-

Otsailekoa, kalean!

# EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza [aizu.eus](http://aizu.eus) atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.

tu duenez, erabaki hori hartu dute ordezkapenak betetzeko langile faltagatik, eta ez osasun arrazoiengatik.

Horixe da egoitza soziosanitarioetako langileak eta senideak behin eta berri eskatzen ari direna: langile gehiago kontratatzeko. Auxiliarrak, erizainak eta garbitzaileak heldu ezinik dabilta, lan karga izugarriarekin. Behin baino gehiagotan geratu dira erizainen bajak bete ezinik, "langilerik ez dagoelako", Jauralaritzak berak ohartarazi duenez. Ordea, Villenak kudeaketa txarrari egotzi dio erizain eskasia, berez, egon, egon behar-ko luketelako, baina unibertsitateko sarbide proban bertan ehunka kanporatu egiten dituzte. Pandemia aurretik errefortzuak behar zituzten; orain inoiz baino gehiago. Ez dagozkien lanak egin behar dituzte COVIDa dela-eta, hala nola familien bisitak antolatzea, ordezkapenak kudeatzea, eta egoiliarrei banan-banan jaten ematea.

Familiak maiz kezatu dira egoiliarrei ez dietela beharrezko arta ematen. Villenaren erantzuna: "Normala da, dirutza ordaintzen dute zaharrek zaintza jaso dezaten, eta exigentzia altua dute. Baina ulertu behar dute ezin diegula dena eman, ez gara iristen". Ratioak jaitea da grebalarrien eskakizun nagusietako bat. Hernaniko egoitzaren kasuan, 100 egoiliarren zaintzaz arduratzen dira hamabost auxiliar eta erizain bat, batez beste, eta egunean hiru orduz mediku bat egoten da. Gainerako zaintzak pixkanaka itzultzen ari dira: fisioterapeuta, aisialdiko langileak, podologoak, psikologoak... Gehien behar zutenean zerbitzu horiek kendu egin zizkieten, "eta egoiliarrei nabaritu zaie kognitiboki eta mugikortasunari dagokionez asko kaskartu direla", Villenaren esanetan. Era berean, neurriak lasaitzarekin hobekuntza ere sumatu die; "ateratzen hasi direnetik eta familien bisita gehiago dituztenetik aldartea hobetu zaie".

### GERTUKO HARREMANEN FALTA

Erizainari batzuetan umeak etortzen zaizkio gogora zaharrek, eta haien behar afektibo berak dituztela azpimarratu du: familiarekin harremana, maitasuna eta gertuko kontaktua inoiz baino gehiago behar dituzte. Egoiliarrei eguneroko poztasunak debekatu dizkiete, hala nola paseoak ematea, lagunekin eta familiarekin kafe bat hartzea, elkarren artean kontu kontari aritzea, kartetan jolastea, eta beste. Gainera, Villenak oroitarazi du langileek zaintza afektiboa



ere eman behar-ko lieketela, eta pandemia aurretik kalitatezko denbora gehiago pasatzen zutela egoiliarrekin hizketan eta gertuko kontaktuan; orain, NBE jantziarekin gehienetan, egoiliar asko ez dituzte langileak ezagutu ere egiten. "Poztasun hori ere kendu diete".

“Txiste bat dirudi. Nola eskatzen digute egoitza lau eremutan banatzea, ez baldin badugu nahikoa baliabiderik egoiliarrek behar bezala isolatzeko?”

Enara Villena Otaegi, erizaina


Jauralaritzaren protokoloak nolabait biltzen du gabezia hori, eta aipatzen du zaharren isolamendua eta bakartze soziala depresioa eragiteko arrisku faktoreak direla, eta mugikortasun ezak ondorio atzeraziaz dituela zaharregan. Horren aurrean, "ahal den heinean mugikortasuna eta sozializazioa bultzatu behar dira", protokoloak jasotzen duenez, "betiere koronabirusaz

ez kutsatzeko neurriak betetzen direla ziurtatuta". Urtarrilaren 17tik aukera, berrikuntza izan da kontaktu estu izateagatik isolatuta dauden egoiliarrek aukera dutela senideekin "paseo terapeutikoak" emateko.

Bestalde, egoitza lau eremutan banatzea proposatzen du protokoloak: sintomarik ez dutenak eta kontaktu estua ez direnak, sintomarik gabe baina kontaktu zuzenagatik isolatuta daudenak, sintomak dituztelako positibo izan daitezkeenak, eta positibo direnak. Horrela, eremu horien barnean mugikortasuna ahalbidetzeko aukerak jarri dituzte. Egoitza askotan, baina, ezinezkoa da: "Txiste bat dirudi. Nola eskatzen dizkigute horrelako banaketak, ez baldin badugu nahikoa baliabiderik egoiliarrek behar bezala isolatzeko?"

Egia da azken protokoloarekin EAEko zaharren egoitzetako egoera lasaitzeko aurrerapauso txikiak eman direla, isolamenduak hamar egunetik zazpira jaitziz, eguneko egoitzetako kontaktu estuei sarbidea ahalbidetuz eta "paseo terapeutikoen" aukera emanez. Baina egoiliarrek orain arte jasandakoa bizkarrean daramate, eta ondorio askok ez dute atzera-bueltarik. Egoiliarrentzat jada ez da nahikoa aurrerapauso txikiak ematea. Familiek eta langileek eskatzen dutena zera besterik ez da: zaharrei duinki bizitzen uzteko, paternalismorik gabe, eta justifikatu ezinezko protokolorik gabe. ●





# Noiz erosi mugikorra seme-alabei?

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

**Gurasoen batasuna gako inportantea da, gehienek bide bera urratzen badute lortzen dutelako smartphoena ez izatea desoreka eta bazterketa iturri**

**B**i amaren kezkek abiatu zuen prozesua Usurbilgo Udarregi ikastolan: zein adinetan erosi smartphoena seme-alabei? Ikastetxeko guraso elkarteak proiektu mamitsua garatu du ordutik, gaiaren inguruan ikasleak eta gurasoak formatzeko. Horrez gain, hiru hilero negoziatzen dute gurasoek: haurrei mugikorra ematea beste hiru hilabetez atzeratzeko moduan gaude? Baietz adostu dute LH 5 eta 6. mailako gurasoek.

Ikastetxeko bi amak jarri zuten kezka mahai gainean. Zarauzko ikastolan gaia lantzen hasiak zirela eta bertan aholkulari aritzen zen Miren Ros adituaren hitzaldia antolatu zuen Udarregiko guraso elkarteak, 2019an. Hitzaldi isolatutik harago, ordea, kostatu zitzaien patata beroari heltzea, norberak bere etxean egiten duenaz aparte gaiari modu kolektiboan eustea. Baina ekin zioten azkenean, Lehen Hezkuntzako ikasgela bakoitzeko guraso ordezkari banarekin talde eragilea sortu eta 2021eko urri-rako prest zuten proiektua: eskolako programazio pedagogikoan txertatu dute gaia -Udalaren dirulaguntza bati eta ikastolaren inplikazioari esker-, eta ikasleei formakuntza ematen die Miren Rosek, LHko 4, 5 eta 6. mailan eta DBHko 1 eta 2. mailan, Youtube, Twitch, bideojokoak -nagusiki mutilak dira erabiltzaile-, sare sozialak -nagusiki neskek dira erabiltzaile- eta gisakoak kritikotasunez erabiltzeko eta sarean norbere burua babesteko baliabideak garatu ditzaten, besteak beste.

Izan ere, bi helburu ditu proiektuak: mugikorraren erabilera haurren artean

ahalik eta gehien atzeratzea batetik, baina behin interneterako eta mugikorrerako sarbidea dutela, eskura dutena ongi erabili dezaten teknologikoki heztea, bestetik.

Gurasoek ere prestakuntza jasotzen dute Rosekin, eta sortzen diren zalantzez ezbaidatzen dute, elkarri lagunduz, batzuek eta besteek etxean nola jokatzen duten partekatuz. Eta hiru hilero, negoziatu egiten dute: beste hiru hilabetez seme-alabei mugikorra ematea atzeratu dezakegu? LH 5 eta 6. mailako guraso gehienek hala adostu dutela kontatu digu Izaskun de Miguel Udarregiko gurasoak. "Ez dakit lortuko dugun gure haurrek 16 urte bete arte atzeratzea, baina pixkanaka egingo dugu bidea", dio. Iazko udaran LH 6. mailan zeuden ikasleen gurasoek, adibidez, atzeratzea adostu zuten, baina pasa den abendutik, seme-alabak jada DBH 1. mailan direla, bost ikasle izan ezik gainerako guztiek mugikorra dute. De Miguelek kontatu digunez, bere inguruan 12 urterekin eman ohi zaie mugikorra haurrei.

Gurasoen batasuna gako inportantea dela dio, gehienek bide bera urratzen badute lortzen dutelako smartphoena ez izatea desoreka eta bazterketa iturri, ikasle gehienek badutelako eta gutxiengok ez.


## ZERGATIK ATZERATU ADINA?

Izaskun de Miguelek oharra egin du: ez daude teknologiaren kontra, teknologiaz eta haren erabilera gogoetatzeko beharra jarri nahi dute mahai gainean. Haurren garunak ez daude prestatuta mugikorrerako input jariora behar bezala kudeatzeko eta menpekotasun arazo izugarria sor daiteke -"helduongan ikusten dugu"- . Zenbait erabilera atzeratzea komunikazio bortitza saihesteko modua ere badela dio gure elkarrizketatuak, ikusi baitute Fortnite eta halako bideojoko bortitzek eragina dutela gero ikasleen arteko harremanetan.

Behin seme-alabari mugikorra ematea erabaki dugunean, opari gisa ez aurkeztea inportantea dela dio de Miguelek, eta ez izatea zerbait pribatua, baizik eta gurasoek sarbidea izatea, etxeko sarrean denen eskura egotea gailua. Horretarako, baina, gurasoek antzera jokatu behar dute, eurak izan behar dute eredu: "Etxean uneoro mugikorrari lotuta bagoaude, nola eskatuko diegu kontrakoa seme-alabei? Helduok pantailarekin dugun harremanari erreparatzea da lehenengo urratsa".

"Ez gara gai honekin bueltaka gabil-tzan bakarrik", nabarmendu digu de Miguelek. Zarauzko ikastolako ereduia izan zuten beraiek abiapuntu, eta Zumaia-koei laguntzen ari zaizkie orain. Tolosan, Donostian... ere ari dira gaia lantzen, eta Hernanin herri guztia aintzat hartzen duen ekimena dute esku artean.

Beste artikulu baterako ematen duen aipamena ere egin digu Izaskun de Miguelek: Udarregin inplikatu diren guraso guztiak amak dira, emakumeak. ●



# Munstroak irentsi ez gaitzan

Globalera ohitu gaituzte. Zirrargarria da munduko edozein txokotako informaziora iritsi ahal izateko gaur egungo aukera. Zoratzarainokoa, hainbeste leiho ireki zaizkigunean. Klik bakar batean. Baina munstro handi bat ere bada, irensten gaituena bere seduzitzeko gaitasunarekin. Non geratzen gara gu munstroaren ondoan?

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA  DANI BLANCO

**B**alorean jarri behar ditugu toki-koa, komunitatearen indarra, gurea gure hizkuntza txikitik kontatzea. Ongi aski dakigu gure historia beste batzuek kontatzea zer den, kanpotik, beren hizkuntzan. Egin dezagun lan kalitatezko informazioa eta edukiak guk sortu eta mundura zabaltzeko. Aurtengo Argia Sariak dira gurea bertatik, komunitatearekin, kalitatez eta euskaraz kontatzeko bidea errazten dutenentzat.

## IKUS-ENTZUNEZKOAK. DAPA

Irudia dugu, gaur egun, hemengo eta hango historiak eta istorioak ezagutzeko eredu nagusia. Irudi horiek zer kontatzen duten eta nola kontatzen duten, hortxe dago koska.

Azpeitiko Kulturaz kooperatibaren barruan sortutako ikus-entzunezko bilduma honek sormena du oinarri eta helburu. Dapa bakoitzean jartzen dute sortzailea protagonista paperean. Zer egiten dute gure inguruko artistek, zer

sortzen dute, nola, zer pentsatzen dute? Nola ikusten dute mundua?

“Zerbait freskoa egin nahi genuen, sortzaileekin egon, sukalderraino sartu, konfiantzan hitz eta lan egin. Lortu dugu Dapa estilo bat-edo”, dio Nora Alberdi Odriozola Kulturaz kooperatibako kideak. Euskal Herri luze zabalean sortzen dena erakutsi nahian bideo labur bakoitzak du bere kontaera, soinu eta irudi unibertso propioa, mimoz zaindua. Ez baita zer kontatzen den soilik, nola kontatzen den ere garrantzitsua baita, eta horretan teknikak, narratiboak eta zinematografikoak, berebiziko garrantzia dute. “Pasioz egiten dugun lana da. Sortzaile batekin egotea, denbora konpartitzea, bizi dugun gauza bat da eta uste dut gertutasun eta pasio hori gero Dapa bakoitzean nabari dela”, jarraitu du Alberdik.

“Euskal Herriak eta euskal kulturak behar ditu argi-zuloak eta leihoak erresistentziarako, eta Azpeitian sortutako proiektua da, baina helburu kolektibo

horretan jarri nahi dugu gure aletxo”, azpimarratu du Jose Luis Otamendi Etxabe kooperatibako kideak.

## PRENTSA. AIARALDEA

Aiaraldea eskualdea balio eraldatzaile batzuen baitan euskaratik eta euskaraz bizitzeko ametsarekin hasi zen martxan komunikabidea duela hamaika urte. Tokiko komunikabidea. Izaera komunitarioa daukana. Kazetari lantalde profesionala txikia izanik ere, informatzeko gogoak bultzatuta musu-truk aritzen den kolaboratzaile sare oparoaren informazioak handitu egiten du eragiteko gaitasuna. Ingurunean errotuta egoteak bermatzen du baliabide faltagatik bestela ezinezkoa litzatekeen kazetaritza jarduna.

Beraz, multinazional batek errentagarritasunaren izenean eskualdeko 129 familia kale gorrian utzi nahi dituenen, eta langileak grebara doazenean, eta lanuztea 236 egunez luzatzen denean, eta langileek garaipena ospatzen dutenean...





Dapako kideak, ezkerretik eskuinera, Ander Mujika, Aitor Bengoetxea, Nora Alberdi, Yuri Agirre eta Jose Luis Otamendi.

Herrikideen bizi baldintza duinen aldeko greban barneratzea beste aukerarik ez dago. Hasieratik amaierara arte, egunez egun, lagun, auzokide eta senideen piketetik.

“Gure funtzionamendua eta funtzioa komunitarioa da eta guk eskualdeko errelatoa kontatu dugu. Lana Tubacex-eko grebalariena izan da eta gu bozgorailu bat baino ez gara izan, irudia eta hitza jarriz beraiek egindako borrokari”, azaldu du Izar Mendiguren komunikabideko kideak. “Guk lortu badugu Tubacex-eko langileen grebaren eguneroko jarraipena egitea izan da neurri handi batean langile horiek bidalitako irudiengatik”, gehitu du Txabi Alvarado Bañaresek.

Herriko historian mugarri diren gertaerak txikitik ere kontatzen dira. Aiaraldea.eus-eko lagunek horixe egin dute, eta ondo egin ere. Laudioko eta Amurrioko Tubacex-eko langileen greba, erresistentzia eta bizipenak hurretik kontatu, hedatu eta galdera berriak sortu dituzte. Eta horrek saria merezi du.



Aiaraldeaeko kideak saria jasotzen, aurreko planoan Aitor Aspuru ezkerrean, Izar Mendiguren, Aimar Gutierrez eta Txabi Alvaraso.





Badokeko arduradun Jon Eskisabelek jaso zuen saria.

## INTERNET. BADOK

Gure bizimoduan geroz eta egonkortuago dagoenean musika formatu digitalean entzutea, Internet bezalako itsaso zabalean sortu zen euskal musikaren erreferentzia eztabaiaezina den *Berria* egunkariaren euskal musikaren ataria: Badok.eus.

Euskal musikari buruzko entziklopedia gisa hasi zena urte gutxian zabaldu eta biderkatu da. Panorama musikari buruzko berriak, abesti eta diskoen estreinaldiak, elkarrizketak, abesti-zerrendak, kontzertuen datak argitaratzen dituzte, besteak beste, baina katalogo izaera galdu gabe. “Uste dut datu basea baztertu gabe gaur egungo euskal musikari hedapena emateko formula topatu genuela eta asmatu genuen euskarazko musikaren erreferentziak erakusleio bat sortzen”, adierazi du Jon Eskisabelek.

“Euskal musika azken urteetan izugarri atomizatu da eta atari honetan denek dute lekua. Ez gaude audientzia handien mende, ez gaude abesti edo talde arrakastatsuenekin itsututa. Duela 20-30 urte askoz zailagoa izango zen horrelako zerbait egitea. Garai hartan disketeen inguruan eratutako sistema baten mende geunden eta askoz hierarkizatuagoa zegoen. Gaur egun txiki eta handi, askoz horizontalagoa da”, azpimarratu du atariaren kudeatzaileak.

Erreferentzia bilakatu da Badok.eus, entzuleentzat zein musikarientzat, ezinbesteko tresna.

*Aurtengo Argia Sariak  
dira gurea bertatik,  
komunitatearekin,  
kalitatez eta euskaraz  
kontatzeko bidea  
errazten dutenentzat*

## IRRATIA. ARTXIPELAGOA

Komunikazioaren munduan oso zaharrak dira irrati- edo antzerki-nobelak. Orain podcastak deitzen zaie, ez dira berdinak, baina sustrai bertsukoak bai, eta azken urteetan lortu dute arrakasta interneteko euskarri gisa.

2103. urtera garamatza saritutako fikziozko abentura istorio honek. Zintzoak, gaiztoak, piratak, borrokak, heroiak... kasakoak jantzi eta lehen minutuan murgilduko da entzulea. “Abenturazko istorio klasiko bat da. Izan daiteke gaur egungo Netflix-eko serie bat. Baina hemen egina, gure erreferentziarekin... horregatik ere izan du arrakasta, ikusi delako egin daitekeela hemen ere zerbait txukuna”, diote egileek.

Bistaren zentzumena murrizteak irudimenari irekitzen dizkio ateak. “Informazio guztia entzumenetik sartu behar da eta oso kontutan eduki behar da hori. Ikus-entzunezko batean plano eder batean irudian bakarrik informazio asko sar dezakegu. Hemen ez. Aldi berean, ordea, ederra da, bakoitzak irudikatuko duelako bere modura Urbasako portua edo Gorbeako Batzarra”, azaldu dute.

Distopia zaharra da sormenaren historian, baina sasoi batzuetan besteetan baino indartsuago ageri zaigu, eta COVID garaiak edo bizi dugun larrialdi klimatikoak indar berezia ematen diete gisa honetako lanei. Lan hau fikzioa da, ez da oraindik Euskal Artxipelagorik, baina begirada zabalduz, egia borobiletik ere badu, urak haien lurrak mende hartuta, munduko milaka lagun ari baitira ihesi lur segurua goen bila, tartean gurera hurbilduta.



Artxipelagoa ekoizti duen Ulu Mediako Martin eta Xabier Etxeberria anaiak eskuinean, eta Oier Arantzabal (atzean) eta Juan C. Andres.





Irulegi Irratiko Jojo Bidart, Xiberoko Botzako Julen Guïresse eta Gure Irratiko Arantxa Idieder Anton Mendizabalek egindako sariekin.

### **MEREZIMENDUZKOA. GURE IRRATIA, IRULEGI IRRATIA ETA XIBEROKO BOTZA**

Antena bat tontor baten gainean kokatu, FM irrati-igorle bat eskuratu, bolondres baten etxean mikrofono pare bat entxufatu eta abiatu ziren, ahal bezala, uhinen bidez euskara zabaltzeko abenturan. Horratx orain 40 urte ibilbidea hasi zuten Ipar Euskal Herriko euskarazko hiru irratien hastapena.

“Euskaraz iratzarri entzuleak, euskaraz biziarazi egunero, kalitatezko informazioari garrantzia emanez... hala egiten dute Euskal Irratiek eta ez dut irudikatzen zer izango ziren Lapurdi, Baxe Nafarroa eta Zuberoa duela 40 urte irrati hauek sortu ez balira”, azaldu du Gure Irratiko kideak.

Ameslari batzuen burutaziotik sortutako proiektuak lagun fidela izaten jarraitzen du anitzentzat. Eskualdeka banatutako irratiek Euskal Irratiak federazioa sortu zuten 1997an, gerora Antxeta irratia sarean gehituz. Baina oraindik jarraitzen dute bakoitzak bere lekutik lanean. “Inportantea da tokian tokiko komunikabideak egotea, jendeak ukan dezan leku bat komunikatzeko; bertakoa baloreen jarriko duen espazio bat”, azpimarratu dute.

Bolondresak izan dituzte sustengu hasieratik. “Herritarrek sorraraziak

izan ziren, parte hartzaileak dira sorreran, funtzionamenduan, laguntzaileek hartzen duten heinean, eta parte hartze horrek ematen du indar bat; hori behar da atxiki. Gainera, herritarren sustengua beharrezkoa da autonomia ekonomiko bat izateko ere”. Herritarrekin, herritarrentzat.

### **KANPAINA. PANTAILAK EUSKARAZ**


XXI. mendean euskarak aurrera egingo badu –eta, beraz, euskaldunok komunitate gisa–, euskarazko ikus-entzunezkoak normaltasunez kontsumitu ahal izateko bideak behar ditugu. Pantaila guztietan. Ahalik eta plataforma gehienetan, etxetik hasita. Egoera oso larria da. Horren erakusle ondorengo datua: CIESen arabera, 1990. urtean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako haurren %70ek ETB1eko marrazki bizidunak ikusten zituzten; gaur egun, ETB3k %0,3ko pantaila kuota du. Zinemetan bezala, streaming plataforma erraldoietan hutsaren pare tratatzen gaituzte. Eta non geratzen gara euskaldunak?

Ez da urtebete Pantailak Euskaraz ekimena martxan jarri zutela eta dagoneko milaka herritarrengana iritsi da oihartzuna.

“Aurretik aipatutako datu horiek argi erakusten dute egoera: gaur egungo herritarren, gazteen gehiengo handi batek gaztelerazko edo ingelesezko edukiak kontsumitzen ditu eta, beraz, horrek eragina du bai euskararen erabileran eta bai dituzten erreferentzetan edo bertako erreferente faltan”, salatu dute ekimeneko kideek.

Manifestu bat plazaratu zuten eta eskaera nagusien artean daude Euskal Herrian gehien kontsumitzen diren streaming plataformetan legez bermatuta egon behar duela euskarazko edukiak egoteak eta euskarazko streaming plataforma bat martxan egotea. ●

Pantailak Euskarazeko kideak, Alex Aginagalde eta Izaskun Rekalde.



# Laino beltzen arteko eguzki printzak

 URKO APAOLAZA

**A**rgia Sariak banatzeko unea oso berezia da etxe honetan lan egin dugun guztiontzat. Aurten, berriz ere ekitaldi jendetsurik gabe egin behar izan dugu, sarien funtzio nagusietako bat dena ase ezinda: euskal kulturagintzarentzat eta gizarte eragileentzat bilgune izatea. Baina, sari bakoitza iragartzeko bideoak egunez egun zabaldu ahala jasotako erantzunak, zoriontzeak eta eskerrak emateko mezuek indarra eman digute aurrera jarraitzeko; begien bistan ikusten diren laino beltzak igarotzeko indarra.

2021ean Hego Euskal Herrian egindako lan kontratuen %91 behin behinekoak izan ziren, lau gaztetik bat langabezia da, soldata arrakala hazi egin da, eta pandemiak aberatsenen eta pobreenen arteko diferentziak handitu baino ez ditu egin mundu mailan, Oxfam elkartearen azken txostenak dienez. Hori guztia prezioak igo eta herritarren eros ahalmena gutxituz doan bitartean, urtarrilaren 29an Baionako karriketaren salatuz gisan. Gainera, onartu berri duten Espainiako lan erreformak ez ditu bertan behera utziko Rajoyren garaitik indarrean dauden legediaren alderdi kaltegarriena batzuk, eta oraindik aukera ematen dio patronalari langileak merke kaleratu eta negoziazio kolektiboa baldintzatzeko.

Bateko krisi orokortua, besteko osasun larrialdia... Komunikazio proiektu

*Kazetaritza  
independentea izan  
dadin, jendearen  
babesa beharrezkoa da.  
ARGIAko kideen  
diru-ekarpenak dira  
komunikazio proiektu  
honen aurrekontuaren  
oinarri nagusia*

honen atzean dauden pertsonak ere kolpatu ditu egoera honek guztiak. Hala ere, ARGIA badugu sekula uko egingo ez diogun altxor txiki bat: gu gara gure jabe. Langileok erabaki dezakegu nola zaindu elkar, eta nola zaindu taldea zein proiektua; norantz jo lan-baldintza duinagoak lortu ahal izateko. Eta argi dugu prekari-zatu gabeko espazio gehiago ureztatzen jarraitu behar dugula inguruan, etengabe, gure eguneroko jardunetik.

Ez dira garai errazak inorentzat, eta ARGIArentzat ere ez. Baina dirudienez, Eusko Jaurlaritzak ez du halakorik ikusi hainbat hedabideri "pandemiaren eraginari" aurre egiteko bost milioi euroko laguntzak banatu eta berriz ere bazterrean utzi gaituenean. Bi urteotan esfortzu han-

dia egin dugu informatuta egoteko eskubidea bermatzeko, euskal irakurleek ere baduten eskubidea, eta harrigarria da instituzio publiko batetik oraindik horrela jokatzeko. ARGIA n ateak beti izan ditugu irekita erakundeekin elkarlanean aritzeko, eta hala ditugu orain ere, baina gure independentzia mantenduz.

Azkenaldian ozen esan dugun bezala, kazetaritza independentea izan dadin, jendearen babesa beharrezkoa da. ARGIAko kideen diru-ekarpenak dira komunikazio proiektu honen aurrekontuaren oinarri nagusia, eta beraiei esker egin dezakegu aurrera. Babes horrekin eskaini ditzakegu, adibidez, euskarazko edukiak doan eta libre sarean, argitaratu ditzakegu boteredunekin kritikoak diren artikuluz zorroztzak, eta banatu ditzakegu Argia Sariak.

Komunikazioaren mundua etengabe aldatzen ari den garai nahasi hauetan, aurrerapausoak egin jarraitzeko ausardia ere ematen digu gure komunitatearen babesak. Hala, ARGIAren funtzioaz eta kazetaritza moldeez gogoetatzen ari gara lantaldean, beti egin ohi dugun legez, gero eta digitalagoa eta multimediagoa den sektorean zer egin eta fokua non jarri behar dugun jakiteko. Ez gara aspertuko eguzki printza horien bila, irakurleari inguruan gertatzen ari dena ulertzeko gakoak eman eta pertsona erdigunean jartzeko duen kazetaritza bat badela sinesten dugulako. ●

 ARGIA Sariak 2022

BABESLEAK

 araba álava  
foru aldundia diputación foral

 Bizkaia  
foru aldundia

 EMAKUNDE  
EMAKUNDEA

 Euskadi, auzolana  
EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO  
KULTURAREN ETORIKIAREN ERAGILEA

 Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

 ETORKIZUNA ORAIN  
Es futuro

 kutxabank


 LABORAL  
kutxa

 MONDRAGON  
GIZONEN  
LANTZAK

 Nafarroako  
Gobernua

 Gobierno  
de Navarra





NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

# Antzinaroan ere Pirinioak ez ziren muga

Ibañetako lepoa, duela 2.000 urte inguru. Erromatarrek galtzada eraiki zuten, Pirinioak puntu horretatik igarotzeko. Pasabideak garrantzia handia izango zuen Erdi Aroan, Donejakue bidea handik igarotzen zelako eta, besteak beste, Orreagako gatazka inguru haietan borrokatu zelako. Baina Antzinaroko hainbat egilek ere aipatzen dute galtzada hura (Ptolomeok, Antoninok eta Ravenako anonimoak), erromatarren garaian zeukan garrantziaren adierazle. Mendilerroa zeharkatzen zuten hiru pasabide zeuden orduan: ekialdean, Panissars; erdialdean, Somport; eta mendebaldean, Ibañeta. Cesar Augusta eta Burdigala (Zaragoza eta Bordelera) lotzen zituen galtzada horrek, eta Pompaelotik (Iruñetik) pasatzen zen. Beraz, Ibañetako pasabidea ezinbestekoa zen fatxada atlantikoko erromatar hiriak lotzeko.

2008an hasi zen Aranzadi Zientzia Elkarteak antzinako iturriek aipatzen duten galtzadaren bila. Prospekzio lanetan aritu ziren hasieran, hainbat garaietako arrastoak jomuga, baina nagusiki erromatar garaiko galtzadaren espezializatu ziren. 2011n aurkitu zuten lehen arrastoa eta 2012an hasi ziren indusketa lanetan. Bildutako informazioarekin Pirinioetako Galtzada Erromatarra ([calzadaromanadelpirineo.eu/eu/](http://calzadaromanadelpirineo.eu/eu/)) webgunea osatu dute. Eta Zazpetik Aurizperrira doan 26 kilometroko bidea ere seinatu dute txangoa egin nahi duenarentzat.

Ibilbide hori egiten duenak ez du harlauzaz egindako biderik topatuko. Hori



Aranzadi Zientzia elkarteko kideek Ibañeta inguruetan aurkitutako erromatar miliarioa.

da erromatarren galtzadez dugun irudia, baina Aranzadiren ikerlanak agerian utzi duenez, hirietako bideak harlauzaz estaliak egon ohi ziren arren, gehienetan tarteko bideak lurrezkoak ziren, mantentzeko errazagoak zirelako. Aldapa handirik ere ez du topatuko bisitariak; ibilbide osoan ez da %6ko desnibela gaintzen Oihane Mendizabal Aranzadiko kidearen hitzetan, "garraio gehiena gurdien eta animalien bidez egin behar zenez, nahiago zuten ibilbidea luzatu,

bidea xamurragoa izateko, sekulako aldapa igo baino".

Gainera, mendilerroaren alde banatan, Donazaharren (Nafarroa Beherea) eta Artzin (Nafarroa Garaia), orografia malkartsua hasten den puntuetan, atsenden lekuak izan daitezkeenak, "restop modukoak" aurkitu dituzte. Bi guneez ezaugarri oso antzekoak dituztela ondorioztatu dute ikerlariek. Eta, hala, horrek adierazten du erromatarren garaian ere Pirinioak lotune zirela, muga baino. ●



V. TRIFONOV

## Lastoekin edaten zuten duela 5.500 urte

1897an Nikolay Veselovsky arkeologo errusiarrak metro bat luze ziren metalezko hainbat hodi aurkitu zituen Maykop hirian, Kaukaso inguruan. Luzaroan uste izan da zetro modukoak zirela, baina berriki Errusiako Zientzia Akademiak *Antiquity* aldizkarian argitaratu duen ikerlanaren arabera,

ontzi komun batetik garagardoa edateko erabili zituzten. Mesopotamian antzeko objektuak aurkitu izan diren arren, hauek 1.000 urte zaharragoak dira, eta ikerlarien hitzetan, "gizarte hierarkizatuetako edari alkoholdunen kulturaren hastapenak hobeto ulertzen lagunduko dute". ●

# LANDAREEK DIOTE LURRAREN BERRI



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**P**aisaia hautematen dugun hori dela esaten dugu. Hauteman edo sentitu edo antzeman edo nabaritu edo aditu edo begiztatu. Ikus dezagun. Ikusten dugun guztia da paisaia, eta paisaia hautemanez bere bilakaera eta guk (gure aurrekoek eta guk) bertan bizitu dugun historia eta istorioak ezagut ditzakegu. Laster ilar lekak irakurri eta barruko aleak argitara aterako ditugun bezalaxe, paisaia irakurriz bertan dirauten arrastoekin gure birramonen, gure amonen, gure amen, hau da, gure bizimodua azaleratu dezakegu.

Oso-osorik geuk sortu dugun paisaia bizi dugu. Bai, hor ikus dezakegun guztia gure-takoren batek egin da. Eraiki, eraitsi, su eman, landatu, kimatu, bota... Dena gure lanen ondorio.

Irautetik bizitzera dagoen tarteko koska leuntzen, bizimodua errazten ikaragarritzko lanak egin izan dira, tokian tokiko naturak bertarako nahiko ez lukeena egin arte. Eta hortik datoz porrotak, naturaren aurkako teknikenak: ongarrri kimikoak, pestizidak, transgeniko okerrak eta abar. Gure lan agronomiko egoskor oker horien adibide adierazle askoak dira desagertze ezagunen erreka-jotzeak: gaztainondoarena (*Castanea sativa*) eta pinu beltza edo azkarra edo intsinis pinuarena (*Pinus radiata*). Jo gabe baina errekarako bidean da beste ugari: Euskal Herri hezeenean mahatsa (*Vitis vinifera*), fruta hezurduna ematen duten arbolak (gereziandoa *Prunus avium*, mertxikondo *Prunus persica*, abrikotondo *Prunus armeniaca*...), intxaurrondo (*Juglans regia*) eta abar.

Bizimodua erraztea gauza bat da, bestea diru gehien egiten duen hura nahitaez jarri beharra, itsu-itsu.

Itsukeria utzi eta ikusten hasi beharko genuke. Begiratu eta ikusi. Eta ikusiz aditu. Aditu, ulertu, atzeman, jabetu, konprenitu, erdietsi eta iskidatu. Jantzi. Horretarako, irakurri egin behar, lurrak dioena irakurri. Toki bakoitzean dugun landaretzak nahikoa esaten digu paraje horretaz, zer den eta zertarako den egokia. Haltza (*Alnus glutinosa*) lur urtsu edota astunetan hazten da. Uztaoa (*Rumex spp.*) berdin. Asunak (*Urtica dioica*)

lurrak nitrogeno gaindosia duela dio. Belarri-karatsa edo basakara (*Asarum europaeum*) ilun, heze eta lurpea karetsua duten tokietan bizi ohi da. Andurak (*Sambucus ebulus*) eta mendak (*Mentha spp*) lur aberatsa erakusten dute; ez alferrik Nafarroan honela diote: “*Campo de ebrus y mendas, no lo vendas*” (Andura eta menda zelairik ez saltzeko). Ezkerte beltzak (*Convulvulus arvensis*) lur ito astunak eta materia organiko edota nitrogeno gaindosia dutenak erakusten ditu. Oteak (*Ulex spp.*) lur azidoak, pH baxukoak maite ditu. Milazuloa, hosto-argala, lukurusa edo baita santio-belarra esaten zaiona (*Hypericum perforatum*) kaltzioa dagoen lurrean etorriko da edo behintzat pH altua duenean; eta toki eguzkitsua dela esango digu. Haritzak (*Quercus robur*) eta ametzak (*Quercus pyrenaica*) lur azidoak dituzte gustuko; alderantziz, erkametzak (*Quercus faginea*) eta abaritzak edo txaparroak (*Quercus coccifera*) lur basikoak.

Landare adierazleak esaten diegu. Ikusi eta ikasi. Erakusteko daude, ez dago horrelako unibertsitaterik. Hain errazik eta merkerik behintzat ez. ●

Nitrogenoa duten lurren adierazlea den asuna loretan.



## IRAKURLEAK GALDEZKA

**Sagarrondo zahar batzuk mugarratu ditut eta zauria sendatzeko zer erabil dezaket? Mila esker erantzunaregatik.**

✍ Imanol

Mugarrotzerakoan zauri handiak sortzen dira. Horiek sendatzea lan zaila eta nekeza da arbolarentzako. Ebakia egiterakoan adararren oinarrian dituen orbaina sortzeko guneak ez moztea da garrantzitsuena. Zauria estali eta sendatzeko ukenduek kalte besterik ez dute egiten. Zaurian izerdia ahalik eta librean ibiltzea da orbaina ondo eta sano sortuko denaren berme onena. Ez eman inolako ukendurik. Izatez gero, laster ezereztu eta eroriko den ukenduren bat eman. Nire gomendioa: behi kaka, buztina eta salda bordelesa egiteko oinarritzko hautsa. Ondo nahasi, ur ttantta bat behar badu gehitu eta ore lodi bat egin. Zauria estali, baina euriarekin eta abar laster desegingo da. Salda bordelesak kobrea eta karea ditu, lehortzen lagunduko dute eta fungizida lana ere egingo dute, gaitzen lehen erasoetatik babestuz. ●

Bidali zure galdera:  
[bizibaratzea@bizibaratzea.eus](mailto:bizibaratzea@bizibaratzea.eus)



## ARTILEA MUNDURA

# “ZABOR” BIHURTU DEN LEHENGAIARI BIGARREN BIZITZA EMATEKO PROIEKTUA



**GARAZI ZABALETA**  
@TIRIKITRANN

**D**uela sei bat urte iritsi zen Rakel Santamaria Gamiz-Fikara. Ez zuen ordura arte artzaintzarekin eta artilearekin inolako harremanik izan, baina kontzientzia ekologistak lehengai horrekin lotutako egitasmoren bat mar-txan jartzera bultzatu zuen: “Hona iritsi nintzenez, konturatu nintzen inguruko artzainek artilea zaborretara botatzeko aukera besterik ez zutela, eta sekulako pena ematen zidan horrek”. Bere kabuz, artilearekin zer egin zitekeen aztertzen eta han-hemen kuxkuxeatzen hasi zen, eta horrela sortu zuen 2017 urtearen bueltan Artilea Mundura proiektua.

## LEHENGAI NATURALAK GALTZEN EZ UZTEKO

“Nire bikotearen lehengusu bat artzaina da Gipuzkoan, eta artile zakuak zaborretara bota behar zituela ikusi nuen. Orduan esan nion ezetz, ez botatzeko, zerbait eginen nuela nik horrekin”, dio Santamariak. Izan ere, kontzientzia ekologistak mugituta, plastikoaren eta antzeko materialen erabilera murrizteko saiakeran ari zen lehenagotik, eta zenbait objektutan plastikoa ordezkatzeko artilea material interesgarria izan zitekeela iruditu zitzaion: “Deba inguruko emakume batengana joan nintzen artilea lan-



tzen ikastera, eta behin teknikak ikasita, hura lantzeko makina bat ere erosi nuen”.

Bikotearen lehengusuaren artilearekin hasi zen, baina pixkanaka hurbilean ardiak zituztenei ere jasotzen hasi zen: “Hemen gehienak ez dira artzainak, etxe inguruko larreak-eta garbitzeko ardi gutxi batzuk bakarrik dituzte”. Denek zaborretara botatzen zuten artilea –horretarako ordaindu egin beharra da kasu askotan, gainera–, eta beraz, begi onez hartu zuten proposamena. Bestetik, Latxa Esnea kooperatibarekin ere elkarlanean aritu da bizkaitarra. Kooperatibak artzainei artilea erosi eta kilo asko biltzen dituenen, garbitzera bidaltzen dute kanpora. “Latxa ardiaren artilea beste mota batzuetakoekin nahasten dute han, haria egiteko eta kardatzeko”.

## PANPINAK, OINETAKOAK, PLANTILLAK...

Latxa Esnea kooperatibarekin abiatutako elkarlan horretatik lortzen duen arti-

letik, oinetakoak egiten ditu Santamariak. “Oinetakoen kasuan, guztia eskuz egitea ezinezkoa litzateke, lan asko eskatzen du-eta”, dio. Sarako lletegia proiektuan lortu dute ardi latxaren artilea bakarrik erabiliz lan egitea, baina oso leku gutxitan egiten dela hori dio: “Guk gure artilea besteekin nahasten dugu kasu honetan”.

Behin artilea garbituta, hura harrotzea eta feltroa egitea dira hurrengo pausoak. Haria gutxitan egiten du Santamariak, sokak egiteko bakarrik erabiltzen du. Bestela, normalean, feltroa darabil artilezko produktuak egiteko: panpinak, zapatilak, osagarriak, xaboiak, margolanak... denetik egiten du, eta sortutakoak inguruko artisaun merkatuetan eta denda ekologikoetan saltzen ditu. “Nik honekin ez dut dirurik irabazten, ekologiarekiko maitasunagatik egiten dut. Helburua gehiago da kontzientziazioa egitea, beti plastikoa beharrean, gauza naturalak ere erabil ditzakegula ikusteko”. ●

# ekologikoa, dena hobetzeko!



Euskadiko Nekazaritza eta  
Elkaidura Ekologikoaren  
Kontseilua  
Consejo de Agricultura y  
Alimentación Ecológica  
de Euskadi

Babesleak:



# EZKONTZA FRAKASATUETAKO TRAPU ZIKINAK, BERTSOTAN

XIX. mendeko lehen herenetik XX. mende erdialdera arte iraun zuen bertsopaperen bizitzak. Askotarikoak ziren, baina maiz errepikatzen zen genero bat: bikotearekin ezkontza hitzartu bai, baina azken uneko arrazoi aldrebesen bat medio bertan behera geratu ostean, bertso jartzaile batengana jotzen zuen sarri ezkongaietako batek, bestearen trapu zikinak lau haizetara zabaltzeko. Gisa horretako hainbat sorta bildu zituen Antonio Zavalak aurten 60 urte betetzen dituen *Ezkontza galdutako bertsoak* liburuan (Auspoa) –gerora izenburu bereko bigarren liburu batean jaso zituen gehiago–. Pello Esnalek eta Joxemari Iriondok eman digute fenomeno haren berri.

 KEPA MATXAIN  DANI BLANCO

**B**ada pasadizo eder bat: Nafarroako lehengusu batzuk ezkontzeko hitz emanda zeuden. Azken unean alargun aberats batek agertu zuen neskarekin ezkontzeko interesa. Neskak berak jakinarazi zion mutilari: “Beste hark ezkondu nahi dik nirekin, baina nik ez diat agure zahar hori hartuko”. Aste batzuen buruan mutilari berriro iritsi zitzaion esamesa, orde. Zer edo zer bazerabiltela biek. Neskarengana joan, eta hark, negarrez, baietz, ezkontza itxi behar izan zuela agurearekin. Mutilak, haserre bizian, Pello Errotarengana jo zuen, bertsoak jartzera. Zabaldutako ziren bertso paperak, eta iritsi zitzaizkion agureari ere. Hura ere sutan azaldu zen Pello Errotarenean: “Merezi al nuen nik bertsorik? Andregai falta nuenez, hura ‘pretenditu’ besterik ez nian egin!”. Errotariak azaldu zion bere lana besterik ez zuela egin.

Eta agureak: “Orduan jar itzak beste batzuk nire alde!”. Baina Pello Errotak badaezpada mutilarengana jo zuen, zer egin behar ote zuen galdezka. Hark ondo zekien zenbat balio zuen bertsoak jartzeak –bost duro–, eta beste horrenbeste eman zion, ez jartzearen truk. Behin jarritako bertsoak bitan kobratuta, gustura gelditu zen asteasuarra.

Bertso jarrien zati handia osatzen dute bidean gelditutako ezkontzei buruzkoek, eta horietako batzuk argitaratu zituen Antonio Zavalak orain 60 urte *Ezkontza galdutako bertsoak* (Auspoa) liburuan –bigarren bilduma bat ere egin zen gerora, 1999an–. Sarri samar gertatzen zen: bikote baten ezkontza asmoak azken uneko arrazoi aldrebesen bategatik porrot egiten bazuen, ezkongaiak bertsolari batengana jotzen zuen bikote ohiaz gaizki esaka. Hark purrustei bertso-sorta forma eman ondoren, inpre-

tatik pasa eta lau haizetara zabaltzen zizuten. Gehienetan gizonak izaten ziren emakumezkoen aurkako trapu zikinak zabaltzen zituztenak, eta kontrako kasurik baldin bada ere, emakumearen aitaren ekimenez izaten zen gehienetan. Enkarguzko bertsoak izaten ziren, beraz, baina ez beti. Joxemari Iriondok dio askotan bertsolariak eurek jartzen zizkietela bikote ohiei. “Estilo horretako azken bertso sorta, ziur asko, Segundo Etxeberria errezildarrak jarriko zuen. Berak kontatu zidan: andregaiak utzi zuenean hamasei bertso jarri zizkion, baina amak nonbait debekatu egin zion argitaratzea, eta erretiratu egin zituen”. Bertso gehienetan antzeko kontuak leporatzen zaizkie emakumeei: hitza ez betetzea, leiala ez izatea edota diruzalea izatea –bada emaztegaia moja sartu zaiola eta kexaka dabilenik, emaztegaia aitarekin ezkondu delako amorratu denik, edo ezkontzak



porrot egin zezan azpijokoan aritutako auzokideen aurka sumintzen denik ere-. Gizonei buruzkoak nabarmen gutxiago dira, eta gehienak aurrez haiek botako akusazioen erreakzioak, norbere ohorea defendatzeko asmoz eginak.

Pello Esnalen ustez, ezaugarri nagusi batek bihurtzen du liburua zail samarra: "Testuingururik gabeko bertsoak dira eta, gainera, Zavalak propio ezabatu zituen bertsoetatik protagonisten izenak eta bizilekuak, inor ez mintzearren. Oso kezkatuta sumatzen dugu horrekin, eta ez zitzaion arrazoirik falta. Bertsopaper haiek sekulako ondorenak ekarri ohi zituzten, eta ez da harritzekoa min hori berritu nahi ez izana". Iriondori iruditzen zaio Zavalaren hautua ez zela errespetu kontua bakarrik: "Pertsonaien eta herrien izenak ezabatzea salaketak saihesteko modua zen. Gertatu baitzen bertso jarrietan inoren izena aipatu eta

familiak auzitara jotzea". Badaezpada, kontu berezia izan zuen bertsoarik zaharrenak hautatzeko -XIX. mendearen bigarren erdialdekoak dira liburuko lehenengoak-, berrienak gerorako utziz. Hartara, ziurtatu zuen bertsoetan aipatutako inor ez zela bizi.

Baina testuinguru eta erreferentzia faltaz gain, bada besterik: bertsootako euskara ez da ulertterazena. "Bertsoa zenbat eta zaharragoa, euskara orduan eta zailagoa. Agian bati baino gehiagori atzera eragingo dio horrek, baina ohitzea da kontua", dio Esnalek. Bertsolariak ez zuten nahi izaten beren izena paperetan agertzerik eta, beraz, ez dago jakiterik sorta bakoitza norena den. Jakina da puntako bertsolariak behintzat jarduten zutela zeregin horietan: Pello Errotak zilarrezko bost duro kobratzen zituen; Txirritak, beranduagokoa denez, hamar. Eta lan ordainduak bezeroari zi-

legitasuna ematen dionez gero, zenbaitetan moldaketak eskatu ohi zizkieten: ezabatu bertso lerro hau, jarri gogortxoago pasarte hori. Edozer, aurkariaren ospea lohitzeko bazen -norbere sinesgarritasuna galdu gabe, beti ere-.

Izan ziren "eragotzitako bertsoak" ere. Susmo txikiaren aurrean garaiz mugituz gero, noiz edo noiz lortzen zuten ezkongai ohia konbentzitzea bertsoarik ez jartzeko. Alferrik izaten zen gehiengotan, ordea. Argitaratuz gero, beita gosez zebiltzan auzokideek irrikaz irensten zituzten, eta kolpetik zabaltzen ziren. Biktimak hiru aukera izaten zituen, orduan: barrenak lehertu beharrean isilik irautea, liskarraren bere ikuspegia beste bertsolariaren bati kontatzea, edo ezkongai auzitara eramatea. Ondo zigortuak izan omen ziren gizon bat baino gehiago.

Ez dago jakiterik galdutako ezkontzei buruzko zenbat bertso sorta argitaratu



ziren, baina Zavalari kasu eginez gero, beste “dozena erdi” liburu osatzeko adina bai. Errotua behar zuen tradizioak, inondik ere, Asteasuko Joxe Migel Bitoria ‘Anbuerri’-k negoziotarako nitxoa ikusi zuenerako: asmatutako bikoteen arteko hausturak kontaktatzen zituen bertsoetan. Gizonak emakumeari jarritako sorta bat saldu ondoren, emakumeak gizonari erantzuten zioneko beste bat egiten zuen, eta, bukatzeko, berriz ere gizona emakumeari zuzentzen zaion azken bat. “Entrega bidezko nobela erabatekoa, bistan denez”, dio Zavalak. Sorta bakoitza txakur handi bat kobratzen zuela jakinda, irudika daiteke zenbat aberastu zen. Pentsa, hiltzerakoan 13.000 pezeta utzi zituen.

## GARAICO KOMUNIKABIDE BAKARRETA KOA

*Ezkontza galdutako bertsoak* zail dira egungo begiradatik ulertzen, Esnalen ustean: “Lanak ematen ditu sinesteak nola argitaratzen eta zabaltzen ziren horrelako bertsoak, gizon-emakumeen arteko eta familietako trapu zikinak aineratuz. Batzuetan, familia batzuk betiko markatzeraino”. Zavalak argitzen du zerbait liburuko hitzaurrean: herribizitza eta literatura zeharo bat eginda zeuden garaian izan zen halako zerbait posible. Bizitzaren eta literaturaren arteko arrakala zabaldu ahala, pixkanaka desagertu ziren halako praktikak, baita haiek sortutako istiluak, sesioak, gorrotoak eta ezinikusiak ere. Azken batean, bertso paperen fenomeno zabalaren aldaera bat gehiago baizik ez zen hura.

Tentuz ibili behar da bertso paper zaharrak eta berriak zaku berean ez sartzearekin, Esnalek ohartarazi duenez. Izen bera duten arren, bertso paper berriak dira aldizkarietan argitaratzen zirenak –eta direnak–, edo gaur egun sariketetara bidaltzen direnak. Bertso paper zaharrak, aldiz, hasierakoak dira, inprentetan paper solteetan inprimatzen zirenak, gero merkatuetan eta saltzeko. Esan bezala, 100 bat urteko bizitza izan zuten horiek, eta Esnalek dioenez, 1965ean argitaratutako Luis Rezola ‘Tximela’-ren *Perretxikuak* sorta izan daiteke azken bertso paper zaharra. Baina apenas argitaratu ziren azken gerren ondoren.

Irudikatzen ere kosta egiten da garai hartako gizartean bertso paperrek zenbaterainoko pisua zeukaten. Bertsoak jarri zituztenen artean daude Xenpelar, Bilintx, Pello Errota, Manuel Antonio



*Irudikatzen ere  
kosta egiten da garai  
hartako gizartean  
bertso paperrek  
zenbaterainoko  
pisua zeukaten*

Imaz, Udarregi, Pedro Maria Otaño edota Txirrita, batzuetan beren ekimenez, besteetan norbaiten enkarguz –ezkontza galdutakoen kasuan bezala–. Behin sorta inprentatik ateratakoan, bertsoen merkaturatze fasea hasten zen. Zavalak deskribatzen du prozesua: ferietan, merkatuetan, festetan, erromerietan, edonon entzun zitekeen bertso-saltzailearen ahotsa –“eztarri oneko gizona” izan ohi baitzen–. Kale kantoietan jarrira, kantari hasten zen. Entzule pila ederra inguratzen zitzaion zer suma, bertso berriek zer zekarten jakin-minnez. Ahal zuenak berehala erosten zuen bertso papera; ezin zuenak –edo dirua izanagatik irakurtzen ez zekienak– belarriak tenk jartzen zituen, eta ez zen saltzailearengandik urruntzen sail guztia buruz ikasi arte. Etxera asto gainean edo gurdian erretiratzen zirenek erositako bertsoak kantatuz egiten zuten bidea, eta iristerako ia denak buruz ikasita izaten zituzten. Eta han ere

izaten zuten beti norbait bertso eske. Klase guztietako gaiak jartzen zitzaizkien bertsoak: erlijiozkoak –santuen bizitzak, herrietako misioak, Gabon-kantak–, gizarteko gaiak –mutilzaharren zorigaitzak, ezkonduen gorabeherak, kuarteletako bizimodua, arazo sozialak...–, eguneroko gertakizunen ildokoak –berri politikoak, gerratekoak, lapurretak, hilketak, bizilagunen arteko istiluak, ezkontza galdutakoak...–, eta baita kirol-kontuak ere –aizkolari-apustuak, harri-jasotzaileenak, pilota-partidak...–. “Funtsean, egun komunikabideek betetzen duten funtzio berbera zeukaten. Kolore guztiak lantzen zituzten: arrosa, beltza edota horia”, dio Esnalek. Bertso jarriek informatu ez ezik iritzia sortzen zuten; klase guztietako eztabaida politikoak eta pertsonalak haizatzen zituzten; eta, zenbaitetan, erakunde ofizialetako justiziaren kontrapisu funtzioa ere betetzen zuten. Batzuetan narratziora jotzen, besteetan lirikara; tarteka prentsa estilora gerturatuz, tarteka kontakizunera. Esnalek gogoratu du “gaurko komunikabideek hain ondo egin ohi duten buru-janean” ere saiatu zirela bertso paperak, eta ez dela kasualitatea bertso paper gehien Bigarren Gerra Karlistan –1872tik 1876ra– argitaratu izana. Euskaldun gehienengana heltzeko –eta haiek konbentzitzen saiatzeko– bertso papera zen biderik azkarrena alde bietakoentzat. Aldiz, 1936ko gerran oso bestela gertatu zen: ordurako egunkaria eta irratia oso zabaldua zeuden, jende askok zekien gaztelaniaz, eta bertso paperrek lehengo funtzio ideologizatzailea galdu zuten. ●



# Auspoa, bilduma eta hemeroteka

Aurten dira 60 urte *Ezkontza galdutako bertsoak* argitaratu zela –bertso zaharrak gaika antolatuta Auspoak atera zuen lehen liburua-. Esnalen ustean, horregatik da aproposa ulertzeko Zavalak zenbaterainoko lana egin zuen liburuz liburu, bertsoen testuinguruak banan-banan berreskuratzen eta berre-raikitzen. “*Karlisten bigarren gerrateko bertsoak* liburuan dioenez, azterketalanak uste baino lan handiagoa eskatzen zion: hasteko, egilearen izenik gabeko bertso-paperak, ahal izanez gero, identifikatu; bakoitza bere testuinguruan kokatu; eta, ondoren, sailkatu”. Azken batean, bildutako bertsoek euren kabuz ez zuten argitzen noizkoak ziren, ez nongo borrokaldiak kontatzen zituzten, ez izendatutako pertsonak nor ziren. Bertso sorta mordoaz zeukan aurrean,

eta hori guztia sailkatzeko historia liburuetara jotzen zuen maiz. Horrela topatzen zuen liburu bakoitzaren hitzaurrea idazteko beharrezko materiala. Plazaratu zituen pilatutako bertso haiek guztiak pixkanaka, baina ez hasieran aurreikusi bezala. 1956ko irailean –Euskaltzaindiaren gerraosteko lehen batzar irekian– jakinarazi zuenez, bertso-papereen bilduma handi bat plazaratzeko asmotan zen, estudio bat lagun zuela. Esnali iruditzen zaio liburu lodikoteren batzuk izango zituela buruan. Aipatu zuenez, 50.000 bat bertso zeuzkan ordurako bilduta, eta laster eskuratuko zituen beste sail eder batzuk. Jesuitek, ordea, ez zuten bilduma hura argitaratzea beren gain hartu nahi izan. “Kukuak oker jo zion”, azaldu du Esnalek, “nahiz eta gaur egundik zuzen jo ziola esan daitekeen. Ironiaz esanda, jesuitek arrazoi, behin behar eta: nola aterako zuten, ba, halako bilduma gordin, lehor eta irentsi-ezina? Bere gain hartu behar izan zuen lan guztia: bere argitalpena sortu, Arantxa arreba baliatu... Eta gure ikuspegitik garrantzikoagoa dena: liburu solteetan banatu behar izan zituen bertso-paper guztiak”. Horre-

la plazaratu zituen 80 obra, horietatik 58 bertsolariak eta horien biografia ardatz hartuta –guztira, biografia handi eta txiki, ehun biografia inguru osatzeraino-. Gainerako 22 obrak, aldiz, gaika antolatut zituen.

Ehun urte horietan –XIX. mendearen lehen herenetik 1936ra arte– zenbat bertso-paper argitaratu ote ziren galdetuta, zalantza egin du Esnalek: “Bost mila? Hamar mila? Gehiago? Ez dakigu. Asko eta asko betiko galduak dira. Baina mordoxka bat badugu salbatua; asko, Antonio Zavalari esker”. “Azken batean”, jarraitu du, “Zavala bertso-paper zaharren munduak liluratu zuen, bertsoak eta bertsolariak bainoago. Auspoaren bidez –bertso-paper zaharren eskutik–, mutil kokkorretako oroitzenak eta bizipenak abiapuntutzat hartu eta urtetan atzera jo zuen, harik eta ehun urte luzeetako historia, giroa, ingurua eta mundua berreraiki arte”. Hain aritu zen bilketa lanean suharki, teorizatzen asirik ez zuela esaten baitzuen behin eta berriro. Baina denbora izanez gero, nondik nora joko ote zukeen Zavalak? “Bere idatzietan, antropologia aipatzen du tarteka. Berak, bestalde, historialaria izan nahi zuen hasieran, eta bere lanetan argi ikusten da historialariaren eskua”. Egun, Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean 2.164 bertso-paper daude, eta horietako 1.638 dira Zavalaren funtsekoak. Artxiboetan begira ibiltzerik ez duenak hor dauka Auspoa literatur bilduma hirukoitza –Zavala hil zenean, 276 obrak osatua–: bertso-paper berriak sartu dira pixkanaka, eta gerora baita kontakizunak, eleberriak eta bestelakoak ere, baina guztiak ere bertso-paper zaharrak biltzen dituzten 80 obrek hauspotuta. Zein da ondare horren balioa? Esnalek garbi dauka: “Auspoa Euskal Herriaren –euskaraz bizi, euskaraz solas eta jolas, euskaraz kantatzen zuen herriaren– 100 urteko barne-historia da –intrahistoria, Unamunorentzat–. Edo, bestela esanda, Euskal Herriaren 100 urteko bizitzaren monumentu linguistiko-literario-historiko-antropologikoa”. Sarean dago edonoren eskura eta, besteren artean, ederki betetzen da hemeroteka funtzioa: toki paregabea da lardaskan aritzeko.





LIBURUA

# Bat, bi, hiru: Irati Jimenez literaturaz



## BEGIAK ZABALDUKO ZAIZKIZUE

IRATI JIMENEZ

ELKAR, 2021

AMAIA ALVAREZ URIA

**D**urangoko azken azokan plazaratu zuen lan hau Irati Jimenezek, eta berak egindakoa bakarriketa izan ez dadin honatx gure aletxo.

Batetik, euskal sistema literarioaren diagnosa egiten du: gure literatura gaxorik eta hoztuta dagoela dio. Zenbait adibide ematen ditu hori ilustratzeko, eta aholkuak sendatzeko bidean ipintzeko. Bestetik, literaturari buruz hitz egiteko gogoia duela dio eta berarentzat literatura ona eta txarra zer diren adierazten du, irakurle, idazle, editore eta kritikarientzako autolaguntza gidak partekatzearekin batera, bere ezagutzatik eta esperientziatik edanda.

Liburuan kritika literarioa egiten dugunoi eskatzen digun moduan, gehien eta gutxien gustatu zaidana adieraziko dut orain. Askok gustatu zait literaturaz

zein gogotsu, konprometitu eta ahaldundu hitz egiten duen. Gainera, literaturaz, hots, testu eta ariketa literarioaz, berak dioen moduan, nola ari den irakurtzean ere gozatu dut. Hainbeste gustatu ez zaidana erreferente androzentriko eta kanonikoak erabiltzea izan da. Salbuespenak egon arren, eta feminismoa esplizituki bultzatu arren, idazlea eta gizona identifikatu ditu tarteka eta erreferente feminista askoren hutsunea sumatu dut han-hemenka.

Jarraian, hiru ideia edo debaterako gai azpimarratu nahi nituzke: saretzeko beharra, denetarik irakurtzea, gorpuztiko hurbilketa.


Bat: Zafrak, Harawayk eta Garcesek argi utzi dute berriki: hauskorrak gara eta egoera prekarioan gaude; elkarren beharra dugu bizitzeko, komunitatea

elikatzea funtsezkoa da. Jimenezek euskal literatur sisteman kooperatibismoa, tratu ona eta laguntasuna sustatzen hasi behar gara defendatzen du.

Bi: literatur genero desberdinak, liburu onak eta txarrak, hizkuntza desberdinetan, eta klasikoak eta garaikideak irakurri behar ditugu, ez soilik modako nobedadeak. Tradizioa ezagutu behar dugula errepikatzen du eta hori eginez gero harribitxiak topatuko ditugula erakusten digu (Axular, Xaho, Aresti...).

Hiru: euskal literatura haragiz eta hunkiduraz zikindu eta blaitu behar dugula dio. Umorea, mina, kuriositatea, haserrea izan daitezela idazteko akuilu eta irakurtzean testuari lotuko gaituena. Arrazoiaren, errealismoaren eta ikusmenaren nagusitasuna gainditu eta aske sortzea eta imajinatzea opa digu. ●





MUSIKA

# Vulk bai da



AITOR MENDILIBAR



## VULK EZ DA

### VULK

MONTGRÍ, 2022

#### XALBA RAMIREZ

**M**otor baten soinua eta tarte bat jaten duen gitarra riffa diskoa irekitzen. Presa du Vulkek murturrekoa emateko. Lanik kaleratu gabe daramate 2018tik, eta aldaketa nabarmena eman dute taldearen norabide estetikoan. Vulk ez da zena.

Hizkuntzarena da aldaketarik handiena. Euskaraz baita osoki lan berria, lehen aldiz taldearen ibilbidean. Ez zait gustatzen hizkuntza hautua bereziki azpimarratzea. Kasu honetan, aldiz, zirkuitu *mainstream*agoetatik aldendu eta ingurura, gertura, begira jarri direnean badago bestelako mamia. Gainera, orain arteko diskorik hoberena egin dute.

Post punka edo punka edo rocka. Definitzeko beharrik ba ote dago. Astuna eta arina da aldi berean. Lurrera eramaten zaitu, grabitatearen indarrez. Bai-

na dantzara eramango zaitu. Boxeolari baten antzera, demagun Kerman Lejarraga, ukabilkadak baliatu mugitzeko. Gogoraraziko dizkizu Ingalaterrako rock soinuak. Baita Joseba eta Iñigo Irazokirenak ere, ekoizle lanetan aritu baita soinuaren maisu den Ibai Gogortza beratarra.

Musika labana balitz, Vulk litzake. Zauriak dituenak oroitzen du beti labnaren eta orbainaren arteko harremana. Eta denok ditugu zauriak. Eta horregatik, hain zuzen, da hain zorrotz Vulkan erretorika. Dei egiten dizulako. Ezin diozu muzinik egin, harrapatu egingo zaituelako.

Baina harrapatu ostean askatu. Arnas eta geldiene ugari eskaintzen dituelako disko batetik bestera, hausnartzeko, baina, batez ere, bueltan indar gehiago-

rekin jotzeko. Ukabilkada zuzenak dira, baina ez pisutsuak. Zure egunerokoa zartatuko dute: "Mailu bat nire eskuetan / dana apurtzeko prest / zenbat balio du// eraiki dudan guztiak / zapaltzen dudan lurak / zenbat balio du mende-kuak". Soldatapeko torturak tabernariaren bizkarrean. Autoerreferantziala den militantea sakrifizioaren mistika mesianikoaren zain.

"Vulk ez da", diote. Vulk zena hil delako, Vulk berria sortzeko. Baina autosuntsiketa autoafirmazioa ere bada. Mundu berria ez dugulako eraikiko ametsen materialekin, *Paradisu Zineman* bezala. Mundu berria etxe orratzen, zaborjanari kateen, komunikazio enpresen eta banketxeen banketeen hondarrekin egin beharko dugulako. Suntsiketak eka-riko du esperantza. Vulk bai da. ●



# Obusak, zaldiak eta argiak

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 CHRISTOPHE RAYNAUD DE LAGE

**F**estetan justu-justu fandangoa eta arin-arina dantzaten dituen horietakoa naiz. Hala ere, Gayarre-  
ra etorri naiz dantza-emanaldia ikustera. Zerbait entzuna nuen arren, ez nekien oso ongi zer espero. *Señorak* izan dira lehenetarikoak iristen, baina has-  
teko ordua heldu ahala, gazte ugari ere gerturatu da. Argiak itzaltzearekin bate-  
ra hasi dira danborraren danbatekoak.

Hitzak entzun dira euskaraz eta gaz-  
telaniaz. Gerraz mintzo dira, baina dan-  
ztatik egiten diote so, *suaren erregaia da*,  
*suntsiezina da*. Haria segituan harrapatu  
dudala uste dut, hitzik ez zen arren, mu-  
sikak eta dantzarien keinuek narratiba  
sortzen lagundu didate. Ez naiz aditua,  
eta hartara ezin zerrenda ditzaket bata

bestearen atzetik kateatu dituzten dan-  
tzen izenak. Halakoetan beti gertatzen  
zait, gaur ere inbidia sortu da nigan:  
zer gaitasun koordinatzeko, mugitzeko,  
adierazteko, zer dotorezia...

Arreta eman dit goiari, zeruari, eman  
dioten garrantziak: Gernikan bonbak ze-  
rutik erori ziren moduan, Gayarren ere  
jausi dira obusak, ikusgarriak zein ikuse-  
zinak. Umoreak eta folklore espainolak  
ere izan du bere agerpenik eta publikoa-  
ren barrea eragin du pare bat alditan.  
Hala ere, uste dut bertan izan garenok  
bat egin dugula une hunkigarrienarekin.  
Bonbardaketaren ostean, harrien azpitik  
irten da dantzarietako bat, eta hildako  
zaldi bat jarri du altzoan. Isiltasunetik  
ahots fin baina sendo batek jarraitu dio

## GERNIKA

**NORK:** Bilaka Kolektiboa eta Biarritzeko  
Malandain Ballet Akademia

**NOIZ:** urtarrilak 30

**NON:** Gayarre Antzokia (Iruñea)


kantuan, gero *Haika mutil* bihurtu dena.  
Luzea izan da, sinplea, hunkigarria, bai-  
na batez ere, ederra. Jarraian etorri da  
ikuskizun osoari ikusi diodan *baina* baka-  
rra. Lortutako atmosfera dantza batekin  
apurtu dela uste dut, eta ez dut ulertu.

Amiaieran kantuan jarri dira dantza-  
riak mezu argi bat helarazi nahian: *Geroa*  
*gurea*. Bitartean, Picassoren koadroari  
egindako enegarren erreferentzia modu-  
ra, argi bat azaldu da goialdean. Loreak  
utzi dituzte lurrean gero. Txalo zaparra-  
dek hunkitzen banaute, ez dut pentsa-  
tu nahi oholtzakoek zer bizi izan duten  
Iruñean. Harro eta pozik ikusi ditut kan-  
poaldean gertukoak agurtzen zituztela-  
rik. Ez da gutxiagorako, egindako lanari  
esker merezia dute berotasuna. ●





# Gurutzegrama



**EZKER-ESKUIN:**

- 1. Eskualde edo herri bati dagokiona. / Gaixo, errukarri. 2. Saldukeria egiten duena. / Posibilitate, ahalbide. 3. Burbuilu. 4. Su arma baten kanoiaren diametro. 5. Hari, zuntz. / Elkarbideak, loturak. 6. Inspirazio iturria. / Eraikina. 7. Hegazti mota. / Zurrumurru, esamesa. 8. Ardien gaixotasuna. / Aterkia.

**GOITIK BEHERA:**

- 1. Sama. / ... Zedong, lider txinatarra. 2. Bururatu. / Musika mota. 3. Armak erabiliz lurralderen batez jabetzea. 4. Aipatzera behartu. 5. Otsoaren oihu. / Galde partikula. 6. 1002 erromatar zenbakiz. / Abagune, aukera. 7. Geldoa, inozoa. 8. Argazkiko mendia. 9. Letra grekoa. / Elizkizunetarako prestatuta dagoen eraikina. 10. Bokal errepikatua. / Ahuntzaren ar. 11. Zuhaitzen enbor, adar eta sustraiak osatzen dituen gaia. 12. ... Osinaga, Gose taldearen ahotsa eta soinu jotzailea. 13. Ugaztun karniboro. 14. Zerbaiten kanpoko alde. 15. Luzera neurria, metroa baino zerbait laburragoa.

# Sudokua

ERRAZA



9	1			3		4	
5	8				9	6	
			9		1		
	5		2	3	7		8
2	7	4		6	5	3	
			8			2	1
	6	7			4	9	2
	5		2		3		6
				9	8		7

ZAILA

9		6	5				7	
			9					
	1	7						
	7					1		
			3	6	7			5
		2				8	9	
3	6	5						
7			1				4	6
	8				2			

# Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



# Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

- Motz
- Izan ezik
- Ohar
- Infin., kausitu
- Euskal jaka tipiko
- Karratu
- Laster, berehala
- Gogo biziak
- Eztabaidan
- Eurak
- ... eta arte, bitartean
- Ahul, makal
- Tontor, punta

LABUR
ERPIN

**EBAZPENAK**

ARTO HOTZA ONA.  
DAGONARENTZAT.  
"GOSEAK

**ATSOTZITZA**

- ERPIN
- ERKIN
- HARIK
- HAIK
- HIZKA
- UZIAK
- AURKI
- LAUKI
- KAIRU
- KAUSI
- ABISU
- SALBU
- LABUR

**ANAGRAMAK**

ERRAZA  
ZAILA  
ERAZA  
ESKER-ESKUIN: 1. LOKAL, GAJO, 2. ETOL, MEDIO, 3. PUNPILA, 4. KALIBRE, 5. PIRU, ERLAZIOAK, 6. MUSA, PARASOLA.  
GOITIK BEHERA: 1. LEPO, MAO, 2. OTU, PUNK, 3. KONKISTA, 4. AIPARAZI, 5. ULU, AL, 6. MILL, ERA, 7. GELBERA, 8. ADARRA, 9. JI, ELIZA, 10. OOO, AKER, 11. ZURA, 12. INES, 13. OTSO, 14. AZAL, 15. KANA.

# Kistiñe Garcia

KUTSATZAILE HORMONALAK  
BORROKATZEN



## KUTSATZAILEAK ETA HAURDUNALDIA

“Ni orain haurdun nago, eta, hain zuzen, kutsatzaile hormonalak enbrioi eta umekientzat dute arriskurik handiena. Azken azterketen arabera, eragina ilobenganaino irits daiteke, izugarria da. Uteroan garatzen ari garenean, organo bat edo bestea sortzea, barrabilak gorputzaren kanpoaldean agertzea edo barruan geratzea... une egokian iristen den hormona-kantitate jakin baten arabera da, haurdunaldiaren aste bakoitza hormona-fluxu jakin bati lotuta dago. Eta haurraren gorputza berak hormonatzen dituen baina izatez kutsatzaileak diren substantzien eraginpean egonez gero, kalteak sor daitezke”.

“Edozein ingurumen-arazo ondo aztertuz gero, diruarekin egingo duzu topo”

“Ea idaztean doinu negatiboa leuntzen diozun gaiari; nahikoa buruhauste dakar pandemiak”, eskatu digu Kistiñe Garcia Canterok (Bilbo, 1977). Ingurumen Zientziak ikasi zituen Garciak, hogei urte daramatza Ekologistak Martxan taldean, eta elkarte horrek Espainiako Estatuan aurrera daraman kutsatzaile hormonalen aurkako kanpainan lan egin du azken zazpi urteetan. Egia esan behar bada, saiatuta ere, ez da erraza kontua makillatzea.

 UNAI BREA  HODEI TORRES

**Zer dira kutsatzaile hormonalak?**  
Gizakiak sortutako substantziak dira, organismo baten edo haren ondorengo osasunean eragin kaltegarria dutenak, aldaketak eragiten dituztelako funtzio endokrinoan – sistema hormonalari eragiten dioten substantzia naturalak ere badaude, baina gu ez gara horietaz arduratzeko-. Sistema hormonalak *hackeatzeko* dute, nolabait esatearren; berranean dugun komunikazio-sistema da, eta oso garrantzitsua da informazio egokia une egokian bidaltzea. Hori hankaz gora jarriz gero...

**Zer ondorio dakartza horrek?**  
Azken hamarkadetan gaia ikertu duten zientzialariek askotariko eraginak antzeman dituzte. Larrienak, jaiobaino lehen, oraindik amaren uteroan daudela, haurrek jasan ditzaketanak [ikus ezkerreko koadroa]: malformazioak sor daitezke, edo jaioberriengan sumatzen ez diren baina gerora euren adimen-koizienteari eragindo dioten eraginak. Hala

dioten ikerketa sakonak daude: haurren adimen-koizientea beherantz doa, maila komunitarioan, kutsatzaile endokrinoen erruz. Beste ondorio bat emankortasun-galera da: Mendebaldeko gizonen espermatozoide-kopurua erdira jaitsi da 40 urtean. Eta gehiago dago. Esaterako, obesitatea, zenbait minbizi mota... Kutsatzaile hormonal asko dago, eta askotariko kalteak eragiten dituzte. Horregatik, hain zuzen, oso zaila da eragin hori zientifikoki frogatzea eta, azken batean, kutsatzaile horien definizio bat ematea. Ez da erraza mota horretako kutsatzaileak atzematea.

**Askok direla diozu. Kopuru bat esan daiteke?**  
Ez, ez dago kopuru bat ematerik.

**Dozenaka, ehunka, milaka...?**  
Ehunka eta milaka artean. Ezin zehaztu. Izan ere, eta legedi-kontuak aipatzen hasita, urteak behar izan ziren kutsatzaile endokrinoen definizioa emateko, eta oraindik hori ere



"Kutsatzaile endokrinoek gorputzaren sistema hormonalak 'hackeatzen' dute, nolabait esateko".



ez dago argi, legediari dagokionez. Min-bizi-eragileenaren pareko tratamendua ematea nahi dugu guk.

### **Lege-tratamendua, alegia ?**

Bai, hortik dator beste guztia. Lehenik, zientzialariek politikariak konbentzitu behar dituzte; gero, politikariek legeak egin behar dituzte eta, azkenik, legea aplikatu behar da, teoriarik behintzat. Baina kutsatzaile hormonalen eremua oso konplexua da, eta hori baliatzen dute fabrikatzaileek, halako substantziak arautzea eta, hortaz, murriztea, nekeza izan dadin.

### **Ea ondo ulertu dudan. Substantzia bat kutsatzaile hormonalak dela ebatzi bezain laster, ez da debekatzen, edo zeharo murrizten?**

Umm, bai [zalantzi], baina oso gutxi aurreratu da legedi-kontuetan. Oraingoz, plagizidei dagokienez bakarrik zehaztu da kutsatzaile endokrino bat zer den. Hartara, horietako bat gizakientzat kutsatzaile hormonalak dela frogatu gero, ezin izango litzateke merkaturatu. Baina oso zaila da plagizida bat debeka-

tzea arrazoi horrengatik. Oso zaila da europar administrazioak onartzea plagizida jakin bat kutsatzaile endokrinoak dela. Ebidentzia zientifiko izugarria aurkeztu beharra dago.

### **Eta plagizidetatik aparte?**

Europar ez dago plagizidak, plastikoa, kosmetikoak... biltzen dituen araudi bakarria, eta substantziak substantzia hartzen dira erabakiak. Adibidez, A bisfenolarekin bueltaka dabilta oraindik. Gizakientzat kutsatzaile hormonalak dela ebatzi zen, eta 2009tik debekatuta dago biberioien tetinak egiteko erabiltzea, baina oraindik produktu askotan dago. 2015ean, Elikagaien Segurtasuneko Europako Agentziak esan zuen ez dela hain kaltegarria, eta ehuneko bat baimendu zuen elikagai-ontzietan. Baina berriki, bat-batean, erabaki dute onar daitekeen gehieneko ehuneko lehengoa baino 100.000 aldiz txikiagoa dela. Eta ordura arte, zer?

### **Zergatik ez gaituzte administrazioek honengandik babesten?**

Dirua dagoelako tartean. Kito. Edozein ingurumen-arazo ondo aztertuz gero, diruarekin topo egingo duzu. Dirutza handiak irabazten dituzte enpresa batzuek, eta horiek dauzkagu aurrez aurre. Dabiden eta Goliaten arteko borroka da. Bestalde, norberak neurriak har ditzake, ahalik eta gutxien egoteko substantzia horien eraginpean. Plagizidarik gabeko elikagaiak jan, plastikoa murriztu... Baina lotsagarria iruditzen zait herritarrok arduratu behar izatea erabiltzen ditugun produktu guztietan kutsatzaile hormonalak ote dauden jakiteaz; pertsona batzuen lana omen da substantzia horiek guganaino iristea eragozte.

### **Janari-ontziak, kosmetikoak, biberioiak, plagizidak... Nonahi daude kutsatzaile hormonalak?**

Bai. Besteak beste, edozein plastikotan. Eta gutako guztiok, gehiago edo gutxiago, gorputzean halakoak ditugula ere esan diezazuket. Hara, ez gaituzte bat-batean hilko, ez dute toxikotasun akutua sortzen, baina osasunari kalte egiten diote, apurka. ●

# Shakespeare forala

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**B**a joan den osteguneko lan-erreforma yolandikoaren botazioak harrapatu ninduen Shakespeareren *Hamlet* irakurtzen –ez galdu Juan Garzia Garmendiak egindako itzulpena, beste galaxia batera darama irakurketaren plazera–; eta Madrilgo diputatuak, saiatu behintzat, saiatu ziren karga dramatikoan antzerkigile ingelesarekin lehiatzen. A ze istorioa. Kongresuko botazioarena, diot. Denetik dauka: mendeku-gosea, traizioa, komedia eta (politikoki) hilda buka dezaketen aktore asko. Bagenekien zerbait usteldurik zegoela Espainiako erreinuan, baina jo-der.

Horrela ez dago aurreikuspen txukunik egiterik. Gauzek bide honetatik segitzen badute, kafe asko pagatu beharko ditut erredakzioan –bai, Urko Apaolaza, hau zuregatik diot: kasu egin behar nizun EAJren botoei buruz esan zenidan horretan. Baina niri “kafe bat apustu?” esatea okurritu: aber, esnearekin ala gabe nahi duzu?–.

Enfin, ezetz astea ondo bukatu UPN-arentzat, zeren botazio karanboliko horren emaitza agerikoena –lan-erreforma onartzeaz gain, noski– izan da kartoizko kaxa bat bidali dutela Madrildik Iruñera paketeria espres bidez. *Seven* pelikularen amaieran bezala, gutxi gorabehera. Alde bakarra, [kontuz, spoilerra] Gwyneth Paltrowren buruaren ordez Sergio Sayasena eta Carlos Garcia Adanerorena daudela barruan. Bueno, eta agian, *Seigarren zentzumena* pelikulan bezala, [kontuz, beste spoiler bat] bi diputatuek ez dakitela filmaren hasieratik (politikoki) hilda daudela.

Zerbait arraroa ikusi ohi da zeruertzean UPN hasten denean Bidasoako izokinak imitatzen, alegia, Madrilen PSOE-rekin txamaren bat egiten *rive droite*-ko korronteen kontra. Itzal bat. Aura mo-



Sergio Sayas Espainiako diputatuaren kongresuan.

duko bat. Mamu bat, eskuin mesetarioaren eta eskuin foralaren artean agertzen dena, berarekin ekarriz eromena eta atzera-bueltarik gabeko erabakiak.

Ez da hau lehenbiziko aldia: mingaina gutun-azal baten ertza bezain zorrotz, Santiago Cervera akordatu da Miguel Sanzek tragarazi zizkion 2008ko Zapateroren aurrekontuez –bilatu *Diario de Noticias*-en “Esparza hombreándose”: ozpin ultra-kontzentratua–. Bikotekidea beste batekin ohean zingulu-zangulu harrapatzean bezala, gertakari hark puskatu zuen UPNren eta PPren arteko ezkontza kasto bezain zorionsua. Eta hainbeste urteren ondoren, berriz elkarri kotxinkeriarik gabe eskua ematen hasiak zirenean, hara non agertu den Sayas, printze irainduarena jotzen Esparzari: “Tori, daniar errege intzestutsu, hiltzaile, kondanatu: irents edabe hau”. Gaurko

egunetik begiratuta, nabarristen eszenaratze honetan guztiek buka dezakete (politikoki) zerraldo, *Hamlet*-en bezala [ui, barka, hori ere spoilerra zen].

Eta bueno, dibertigarria da oso labana-tratu honetaz aritzea, baina gauzak oso bestela izan zitezkeen PPko diputatu batek ez balu jokatu Homer Simpsonnek tele-lana probatu zuen kapitulu hartan bezala. Zeren orduan, eskuin espainiarra unga-ungaka ariko baitzen Moncloa asaltatu beharrez eta, bale, ados, horrek ezin du izan denari baietz esateko tekla magikoa, baina kezka pixka bat eragiten du gutxienez. Kezkatu behar lukeen bezala UPNren baieztoko botoen truke PSOE Nafarroan noraino iristeko prest zegoen imajinatzeak. Agian, joan den astean, komedia on batek pare bat tragedia eragotzi zituen beraz. “*Navarre shall be the wonder of the world*”, Shakespearek zioenez. ●



# TXORI URDINAK

Espetxearen erretratu bat  
**Santi Cobos** presoaren ahotik

**Zigor Olabarria Oleaga**

**Santi Cobosek** (Leon, Gaztela, 1968) bizitzaren erdia eman du preso. Pairatu ditu torturak, jipoiak, muturreko isolamendua, FIES sailkapena; burutu ditu hamaika protesta eta ihesaldi saiakera, bahitu ditu funtzionarioak eta poliziak. Bidean, Euskal Herriarekin adiskidetu da. Gordinkeria, umorea, gorrotoa, samurtasuna, hausnarketa nahasten dira Santiren lekukotasunean; bere bizipenez harago, espetxe-sistema ezagutzeko kontakizuna da berea.

212 orrialde

**16€**

+ 4€

bidalketa gastuak

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.

**azoka.argia.eus**

**943 37 15 45**

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik **08:00**etatik **15:00**etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).



2. argitaraldia



# Sendabelarrek dakitena

EZAGUTU, BILDU ETA ERABILI

Garbiñe Larrea

248 orrialde

25€

+ 4€  
bidalketa  
gastuak

40€-tik gorako  
erosketetan,  
bidalketa doan.



azoka.argia.eus 943 37 15 45

Lasarte-Oriako ARGIAren egoitzan denda zabalik 08:00etatik 15:00etara (beste ordutegiak aurrez kontsultatu).

ARGIA

BIZI BARATZEA